

LEKUAN LEKUKO

# anboto

FUTBOLA

## "Argi neukan Athleticen jarraitu gura nuela; oso baloratua sentitzen naiz"

Irene Oguiza durangarrak hiru urterako berritu du kontratua Athleticcegaz. Prozesua azkarra izan dela dio. Ez die beste eskaintzei begiratu eta Athleticen partetik oso baloratua sentitzen dela dio / 21



Irene Oguiza. ATHLETIC CLUB



## Betsaide Elorrio eta Geurea, euskal errugbiaren gailurrean

Emakumeen Geurea taldeak lehenengoz irabazi du Euskal Liga, faborito argia zen Gaztedi mendean hartuta. Betsaide Elorrio bigarren urtez jarraian geratu da txapeldun. / 2-3

Paula Palacios eta Iker Chicharro jokalariek, Elorrioko errugbi zelaian.

NATURA

## Ugaritu egin dira makalik dauden animaliei saiek egindako erasoak

Saien portaera aldatu egin da azken hamarkadetan. Janari eskasiaren eraginez, areagotu egin dituzte ahul dauden animalien kontrako erasoak. / 5



Urkiolako Parke Naturaleko sai bat. GORKA VALDES

DANTZA

## "Zornotzarrei eskerrak lortu dugu Udabarri taldeak 60 urte egitea"

Zornotzako dantza taldea ospakizunetan murgilduta dago. Ibai Urrutxuak eta Igone Idigorasek esan dute belaunaldi berriak batu direla taldera / 6



**Joseba Derteano** ELORRIO

Paula Palacios Markiegi (Elgeta, 2000) aitagaz partekatu du aurtengo lorpena, David Palacios taldeko entrenatzailea da eta; Iker Chicharro Juezek (Elorrio, 2006) umetatik ezagutzen duen taldea entrenatzen du, hogeitau urte baino ez dituen arren. Biek urte loriatsua bizi izan dute: Elorrioko, Zornotzako eta Arrasateko jokalariek osatzen duten Geurea emakumeen taldeak lehenengoz irabazi du Euskal Liga, eta gizonen Betsaide Elorriok bigarren urtez jarraian jantzi du txapela.

**Egun batzuk joan dira finalak irabazi zenituztenetik. Zer aho zapo-  
re utzi dizue?**

**Iker Chicharro:** Gu apur bat lasaiago gaude orain. Gogoan dut zer nerbioso geunden finalaren aurreko egunetan! Eta hori final asko daramatzagula jarraian. Asteburuan lagunarteko bat jokatu dugu Tenerifen, denboraldia amaitzeko.

**Paula Palacios:** Asteburuan ospakizunetan ibili ginen oraindino eta titulua asimilatzen gabiltza.

**Zer ospakizun izan zenuten?**

**P.P.:** Urte askotatik hona errugbiaren inguruko jai bat ospatzen dute Arrasaten eta jai hori gure lorpena ospatzeko baliatu zuten. Tradizio bat dute: Arrasatek tituluren bat irabazten badu, kamioi bat ateratzen dute eta jokalariek herrian zehar kamioian ibiltzen dira ospatzen. Oso esperientzia polita izan zen.

**Zelan baloratzen dituzue bata bestearen lorpenak?**

**I.C.:** Geureaken lorpena gurea baino handiagoa dela esango nuke. Hiru talde batu eta elkar ondo ezagutu barik lortu dutena lortzea ikaragarria da. Sekulako meritua dute.

**P.P.:** Gizonetan segidan bost final jokatzeko asko esan gura du. Ezin daiteke gehiago eskatu. Eta aurten kopa biak etxera ekartzea... Oso positiboa da.

**Paula, partiduko azken jokaldian lortu zenuten garaipenaren entse-  
gua. Zelan gogoratzen duzu mo-  
mentu hura?**

**P.P.:** Poza alde guztietatik! Eta ez genuen sinesten txapeldunak ginela. Guk irabaztea sorpresa handia izan zen. Entsegua Haizea Zabala arrasatearrak egin zuen.

**Gaztedi faborito argia zen: mailaz igo da, aurten aurretik euren kontra jokaturiko hiru partidua galduta**

## "Familia bat izatea lortu dugu eta horrek aldea markatzen lagundu digu"

**PAULA PALACIOS ETA IKER CHICHARRO** GEUREA ETA ELORRIO RUGBY TALDEA

Paula Palacios eta Iker Chicharro ez dute berehalakoan ahaztuko aurtengo denboraldia. Nor bere taldeagaz Euskal Ligako txapeldun geratu dira



Bi jokalariek Elorrioko errugbi zelaian.

**zenituzten... Zelan esplikatzeko da  
zuen garaipena?**

**P.P.:** Denok argi genuen oso aukera txikia geneukala irabazteko. Finala gozatzeko mentali-

**"Ez genuen sinesten txapeldun ginela. Sorpresa handia izan da guk irabaztea"**

PAULA PALACIOS

tateagaz joan ginen: irabazi ahal bazen irabazi, baina gutxienez momentuaz gozatu eta gure mailarik onena eman gura genuen. **Iker, zuen kasuan klasiko bat bihurtzen ari da Universitario Bilbaoren kontrako finala. Zerk eraman zuen finala zuen aldera?**

**I.C.:** Hirugarren urtez jarraian jokatu dugu finala elkarren aurka, eta dagoeneko ondo baino hobeto ezagutzen dugu elkar. Talde bakoitzak badaki besteak zelan jokatzeko duen. Guk asko

estudiatu dugu euren gaineko guztia eta seguru nago eurek ere berdina egin dutela gugaz. Esango nuke euren akatsak eta ahultasunak hobeto aprobetxa-

**"Uste dugu sasoi aproposa dela beste pauso bat ematen ahalegintzeko"**

IKER CHICHARRO

tu genituela. Edozelan ere, final estua izan zen; puntu biko aldean egon zen bakarrik.

**Bilboko taldearen kontrako hirugarren finala da, baina Elorrioko gizonen taldeak final gehiago daramatza elkarren segidan.**

**I.C.:** Bost final daramatzagu segidan. Lehenengoa hemen jokatu genuen, Elorrioko, Sara taldearen aurka. Gutzigaitik galdu genuen. Hurrengo urtean Eibarren kontrako finala jokatu eta irabazi egin genuen Irunen, Txingudi taldearen zelaian. Eta gero Universitario Bilbaoren kontrako hiru finalak heldu dira. Lehenengoa galdu eta beste biak irabazi ditugu.

**Bost final segidan eta hiru garaipen, a ze bolada! Zerk bereizten du talde hau besteengandik?**

**I.C.:** Sarritan esaten da eta egia da: familia bat gara. Elorrio 7.000 biztanle inguruko herria da eta jokalariek asko elkarrekin ibiltzen gara. Kanean elkarrekin, gimnasiora elkarrekin, umetatik elkarrekin entrenatzen... Familia bat izatea lortu dugu eta horrek aldea markatzen lagundu digu. Esango nuke Geureakek ere asmatu duela horretan, talde batua egiten. Herri edo hiritan jokalariek joan-etorria handiagoa izaten da. Hemen estabilitate bat dugu. Gero, jakina, talde biek maila handiko jokalariek daude.

**Betsaide Elorrio mailaz igo daiteke aurten?**

**I.C.:** Bai. Euskal Ligako irabazleak Ohorezko B Mailarako igoera fasea jokatzeko eskubidea du. Kontua da Espainiako Errugbi federazioa maila hori berrantolatzekotan dabilela. Beraz, baliteke igoera fasea jokatu barik ere igo ahal izatea. Zain gaude federazioak zer erabakiko. Denboraldi hasieran helburu hori markatu genuen, Ohorezko B Mailara igoatea, eta azkenean arte borrokatuko gara. Euskal Ligako bost final jokatu ditugu jarraian eta eurretari hiru irabazi ditugu, eta, beraz, uste dugu sasoi aproposa dela beste pauso bat ematen ahalegintzeko.

**Paula, zelan joan da zuen liga?**

**P.P.:** Hasieran duda geneukan. Elorrio eta Zornotza batera genbiltzan aurretik, baina aurten, Arrasategaz, hiru talde elkartzen ginen lehenengo aldian zen: hiru entrenatzaile, entrenatzeko hiru herri... Beldur apur batez hasi ginen, baina, zorionez, segituan hartu genuen martxa. Elkar ondo hartu dugu eta urte ona izan da.



Geurea taldea, kamioian garaipena ospatzen Arrasaten zehar. GEUREA



Betsaide Elorrioko jokalarien ospakizuna. BETSAIDE ELORRIO

### Geurea taldearen estreinako urtean Euskal Liga irabazi duzue. Zer esan gura du horrek proiektuarentzat?

**P.P.:** Potentziala duen proiektua dela erakusten du, eta zaindu beharreko zozer dela. Errugbian eta emakumeetan sarritan kostatu egiten da taldeak ateratzea. Orain urte batzuk ez geneukan talderik eta bost urte geroago Euskal Ligako txapeldun gara. Gainera, harrobian ere badabil-tza neskak, eta eurekin ere lan-keta bat egin behar da etorki-zunari begira.

### Hainbat urte daramazu Elorrion errugbian. Inoiz imajinatu duzu hain gora heltzerik?

**P.P.:** Irabaztera helduko ginela ez, baina lana eginda gora heldu gintezkeela bai, behe-behetik hasita taldeak zelako garapena izan duen ikusita.

### David Palacios taldeko entrenatzailea zure aita da. Zelakoa izan da hartu-eman hori?

**P.P.:** Espero nuena baino hobea. Hasieran beldur apur bat ematen zidan, entrenamenduko kontuak etxean gogoratuko ote zizkidan, baina ez; alde biak banatu ditugu eta ondo joan da. Zelaien eta entrenamenduetan jokalaria bat gehiago izan naiz. Ez da igarri aita-alabak garela.

### Iker, zu taldeko jokalaria ez ezik entrenatzailea ere bazara, eta 20 urte baino ez dituzu. Zelan heldu zara postu horretara?

**I.C.:** Errugbia betidanik gustatu zait. Niretzat funtsezkoa da neure bizitzan. Nire balioetari-ko asko, familiarengandik ez ezik, errugbitik datoz. Urterik urtera errugbiari buruz gehiago ikasteko gogoia izan dut. Bizkaia mailako epaile ikastaroekin hasi nintzen. Gero, umeen entrena-tzaile izateko ikastaro bat egin nuen. Ikastaro bat besteagaz kateatzen nuen. Azkenean, seniorretako entrenatzaile izateko

ikasketak egitea erabaki nuen. Klubak nagusien taldeko entrena-tzaile izateko aukera eskaini zidan eta hemen nabil, daukadan dena ematen.

### Zelan ematen zaizkio aginduak, demagun, 30 urteko beterano bati?

**I.C.:** Askok kostatzen da, ezin dizut kontrarik esan. Behin baino gehiagotan pentsatu dut: "Zer esango diot nik honi, ni jaio nintzenetik errugbian dabil eta!". Edo Lehenengo Mailan jokatu duen bati, zer eta zelan esan? Errespetua da oinarria, denen partetik. Sarritan esaten diet jokalariei ni ez natorrela inor baino gehiago izatera. Eta gustukoak ez diren erabakiei buruz berba egin daitekeela, patxadaz beti ere. Denen apor-tazioa garrantzitsua da. Ikasi ere egiten dut askotan. Garrantzi-suena taldea da, taldea apurka hazten joatea.

### Zelan esplikatzan da 7.000 biztanleko herri batek errugbian duen arrakasta hau?

**I.C.:** Urteetako lanaren emaitza da. Jokalari askok txikitatik elkar ezagutzen dute. Jokalari bakoitzak ondo baino hobeto daki besteak zelan jokatzen duen. Eta hori igarri egiten da jokatzerako orduan. Gainera, maila handiko jokalaria ditugu. Esango nuke goragoko maila batean aritzeko maila dugula.

### Horrelako garaipenak zelan lagun-du dezakete herrian eta gazteen artean errugbia oraindino gehiago zabaltzen?

**P.P.:** Elorrion lehendik ere zaletasun handia dago errugbian, baina Euskal Liga biak irabaztea eta herrian zehar ospatzea ikusgarritasuna ematen dio kirol honi eta horrek jendea kirol hau probatzera bultzatu dezake. Nik probatze-ra animatzen ditut denak, kirol ederra delako.

## XIX. FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKAREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

AMOREBIETA-ETXANO

# Haizetara

EKAINA  
19-20-21

2026

- PIERRES & FILS FRANTZIA
- BANDA QUETZAL BELGIKA
- MAMABRASS MADRIL
- LOS JUSTICIEROS MADRIL
- SUPER PANELA FRANTZIA
- FORBI BRASS BAND HUNGARIA
- FANFARRIA TAQUIKARDIA VIGO
- SEVEN SEAS ORCHESTRA ITALIA
- BARNA SABOR TRUBAÇA BARTZELONA
- LES ROGERS BRASS BAND FRANTZIA

www.haizetara.eus

Bizkala  
amankirola  
elorrion

## "Beste behin ere, hizkuntzatik harrera egiteko beharrizan bat dagoela ikusi dugu"

JULENE SAMUEL TAUPAKO HIZKUNTZA ANIZTASUN TEKNIKARIA

**Maialen Zuazubiskar** DURANGO Herritarrek hizkuntza aniztasunaren inguruan gogoeta egitea helburu hartuta, Taupak, Berbarok eta Durangoko Udalak Auzoko Elkarrizketak dinamika antolatu dute. ANBOTOk Julene Samuel Taupako Aniztasun teknikariagaz berba egin du saioaren inguruan.

**Joan zen barikuan Auzoko Elkarrizketak dinamika egin zenuten Durangon. Zelan joan zen? Zelako erantzuna izan zuen deialdiak?**

Saioa primeran joan zen. Hogeita hamar lagun baino gehiago batu ginen eta harrera bereziki polita izan zuen. Jasotako balorazioa ere nahiko positiboa izan zen. Horrelako saioekin agerian geratzen da, eta oraingoan ere geratu da, badagoela beharrizan bat hizkuntzatik ere harrera egiteko, badagoela beharrizan bat horrelako espazioak sortze-

ko; euskara bera erdigunean ipintzeko, baina bestelako hizkuntza eta identitateei ere aitorza egiteko. Gainera, hogeita hamar lagun inguru batzea bada adierazle bat, horrelako espazioek eta proiektuek jarraipen bat eduki beharko luketela.

**Zein da egitasmoen helburua?**

Proiektuen bitartez, hizkuntza-harrera egiten gabilta. Hain zuzen ere, proiektu honen helburua oinarri bat zehaztea da, oinarri bat eraikitzea herrian bertan, zeinetan euskara erdigunean egongo den. Bertan, erdal eta euskal hiztunek elkar ezagutzeko aukera izango dute, elkarri aitorza egiteko eta bakoitzaren esperientzia eta bizipenetatik euren ekarpena egiteko.

**Aipatu izan da jatorri eta errealtate linguistikoari erreparatuta inoiz baino Durango anitzagoa daukagula. Horrela da?**

Bai. Datuek ere hori adierazten dute. Gure proiektu honetan badago dinamika bat datuei erreparatzen diena. Datu horietariko bat zen Durangoko %14k atzerriko jatorria zuela. Beraz, horrek ere adierazten ditu azken urteetako aldaketak, gertatu diren migrazio prozesuak. Azken finean, aniztasun hori baliatu gura dugu harrera egiterako orduan, euskarak ere salto kualitatibo bat emateko. Horretarako, euskaltzaleak bidelagun ditugu eta erdal hiztunak behar ditugu, euskaltzaleak izan daitezkeen edo euskaltzale izateko bidean dabilzanak.

**Zeintzuk ondorio ateratu zenituzten Durangoko saiotik?**

Proiektu honen ondorioak oso irekiak izan daitezke, baina horietariko bat izaten da horrelako saioek segida bat behar dutela. Eta ikusi dugu badau-



dela aukerak Taupak martxan duen bestelako proiektu iraunkorrako bat egiteko. Oraindino ez dakigu zein formatutan, honetaz sakonago berba egin behar delako. Baina uste dugu aukerak egon daitezkeela bestelako proiektu bat inplementatzeko, beti ere hizkuntza-harreraren eta aniztasunaren ikuspuntutik, herriko aniztasuna eta hizkuntza-aniztasun edo kulturartekotasun hori aintzat hartuta.

Horregaitik polita litzateke Berbaro euskara elkarreagaz eta Durangoko Udalagaz elkarlanean espazioak sortzen jarraitzea, eta bertako errealtatera eta bertako beharrizanetara apur bat egokitzea. Baita ere barikuko saioan parte hartu zutenek sentitzea ez dela izan bakarrik momentuko puntu motibagarri bat, baizik eta segida bat izan deza keela eta beste bide batzuk ere bilatu daitezkeela elkarlanean jarraitzeko.

## Durangoko merkatuak Sagardo eguna hartuko du domekan

**Ekaitz Herrera** DURANGO Ekainaren 14an, domekan, *Topa!* ospatuko dute, Durangoko Sagardo Eguna. Jardunaldia merkatuan egingo dute, 11:30etik 15:00etara. Bertan, hamar sagardotegi izango dira sagardoa eskaintzen. Honako hauek: Uxarte (Zornotza), Altuna (Urnieta), Axpe (Markina-Xemein), Etxeberria (Astigarraga), Gu-

rutzeta (Astigarraga), Isastegi (Tolosa), Oiharte (Zerain), Petritegi (Astigarraga), Zapiain (Astigarraga) eta Zelaia (Hernani).

Saltsan catering etxeko kideek pintxoak eskainiko dituzte, eta Fuzank musika taldeak jardunaldia girotuko du. Halaber, Mikel Garaizabal enologoak dastatze azkarrak egingo ditu.



Unai Agirre Euskal Sagardoa deiturako kidea, saio batean. DURANGALDEA ELIKADURA

## EH Bilduren neurri sorta Durango "berdeagoa eta freskoagoa" helburu

**Ekaitz Herrera** DURANGO Durangoko EH Bilduk trantsizio ekosozialerako plana aurkeztu du udalerrri "berdeagoa, freskoagoa eta garbiagoa" helburu. Egoera klimatikoa "txarrera" doala esan du koalizioak, eta "premiazkoa" iritzi dio neurriak hartzeari. Ima Garrastatxu bozeramaileak, adibidez, azkenaldiko bero-boladak eta etorkizuneko "sute zein uholde arriskuak" izan ditu ahotan, eta Durangok etorri daitekeenerako "prest" egon behar duela iritzi dio. Alde horretatik, koalizioak "krisi ekologikoa arintzeko", udalerrria "klima larrialdiaren ondorioetara egokitzeko" eta "trantsizioaren kultura" sustatzeko ardatzak definitu ditu, eta honako neurri zehatz hauek hartzea proposatu du, besteak beste: batetik, herriko berdeguneen azalera handitzea, parkeak handitzea eta Sare Berdea sortzea, baita Larrinagatxura bideko zaborren transferentzia gunea ekoetxe bihurtzea ere. Bestetik, "gerizpez, iturritz eta umeentzako ur joko hornituriko

parkeak egotea bermatu" gura dute, eta "alerta egunetan" Tabirako eta Landakoko igerilekuak "doan" zabaltzea. Azkenik, bidegorri sarea "hobetzea" eta "alokairuzko bizikleta zerbitzua martxan ipintzea" proposatu dute, baita "energia komunitate lokalak sustatzea" ere. Trantsizio ekosoziala gaurdanik hartu beharreko norabidea dela esan du EH Bilduk.



Pinondorako proposamena. EH BILDU

## Durangoko merkatuak okindegia ere izango du aurrerantzean

**E.H. DURANGO** Aurrerantzean, denda berri bat egongo da Durangoko merkatuan: okindegia. Establezimendua lehendik martxan zeuden harategiari, urdaitegiari, ozpinetako dendari, tabernari eta Etartieri batuko zaie. Era berean, oraindino merkatuko lau postuk bete barik jarraitzen dutela eta, udalak lehiaketa publikoa ipini du martxan, establezimendu horiek dendekin betetzeko. Honako negozio mota hauek lehenetsiko dituzte: fruta-denda, arrandegia, gazta eta esnekiak, ardotegia, *gourmet* produktuak eta janari prestatua. Interesdunek postuok bisitatzeko aukera izango dute eskaintza aurkeztu aurretik. Horretarako, mezu bat idatzi beharko dute [kontratazio@durango.eus](mailto:kontratazio@durango.eus) helbidera, eta hitzordua eskatu. Eskaintzak ekainaren 19ra arte aurkeztu daitezke. Udalak merkatuko eskaintza dibertsifikatzen jarraitu gura du.

## Bits jai, puzgarriak eta paella lehiaketa Muruetatorre auzoan

E.H. DURANGO

Zapatutik domekara jaiak ospatuko dituzte Durangoko Muruetatorre auzoan. Umeentzako jolasekin eta Jaizaleko txistulariekin hasiko dituzte ospakizunak, zapatuan, 11:00etan. Ondoren, paella lehiaketa (14:00etan paellak aurkezteko ordua), herri kirolak eta puzgarriak (16:00), Kike Biguriren bakarrizketa eta Ur, Leven Slave eta Blackmoon taldeen kontzertuak egongo dira (21:00). Domekan, magia saioagaz hasiko dute eguna (12:00), eta bits festagaz (16:30), txokolatadagaz (17:00) eta salsa tailerragaz (17:45) jarraituko dute. Jaiak 20:00etan agurtuko dituzte.

## Udalak autobus maiztasun handiagoa eskatu dio Bizkaibusi

E.H. DURANGO

Durango "lotune estrategiko" legez indartzeko helburuagaz, Durangoko udalak alegazioak aurkeztu dizkio Bizkaibusen aurreproiektuari, "zerbitzua herritarren benetako beharrianetara egokitzeko". Eskuera zehatzen artean, autobus-ordutegi maiztasunak handitzea, irisgarritasun unibertsala bermatzea eta asteburuetan 00:30era arte gaueko zerbitzua ipintzea daude. Era berean, udalak Bilborako, Donostiarako, EHUk Leioan duen campuserako, Loiuako aireporturako eta Usansoloko ospitalerako loturak hobetzea eskatu du, baita eskualdeko industrialdeetarako konexio seguruagoak izatea ere.

# Areagotu egin da saiek ahul dauden animaliei egindako eraso kopurua

Durangaldeko azken eraso joan zen barikuan gertatu zen, Gerediaga auzoan



Urkiolako Parke Naturaleko saiak. GORKA VALDES

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Jakina da saiak animalia saraskijaleak direla. Hala ere, azken urteetan portaera aldatzen dabiltzala igarrita daude bai abeltzainak eta baita erakundeetako teknikariak ere. Izan ere, geroago eta ohikoagoak dira putreek makal dauden animaliei egindako erasoak. Durangaldean jaso den azken gertaera joan zen asteko barikuan izan zen. Gerediaga auzoko baserri batean ehun sai inguruko talde batek ardi bat eta haren bildotsa hil zituen. Ardien jabea txakurrak zaunka entzun zituenean artal-

dera hurreratu zen, eta aurkitu zuenak zur eta lur utzi zuen. Sai talde handi bat ardi bati eta haren bildotsari erasotzen zebilen. Egoera horren aurrean, baserritarrak ezin izan zuen ezer egin. "Bildotsa orain egun bi jaijo zen eta landara atera

genituen beste ardiekin batera. Egoera ezin sinestekoa zen. Saiak gerrirainoko altuera zuten eta ehun inguru izango ziren. Inoiz ere ez zaigu halakorik gertatu", azaldu dute kaltetuek.

2025eko datuak

Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu bat dauka erasoak gertatzerakoan kasua aztertzeko. Hala, babestutako animalia baten erasoengaitik behiak edo ardiak hilez gero, kalte ordaina eskatzeko aukera dago. Bada, iaz Bizkaian saiek egindako 72 eraso zenbatu zituzten. Horie-

# 72

ERASO BIZKAIAN

2025ean saiek makalik zeuden animaliei egindako 72 eraso zenbatu zituen BFAK

## 2026ko datuak

Aurten Bizkaian 41 eraso gertatu dira makalik dauden animalien kontra. Durangaldean bost kasu daude herri hauetan:

- Berriz
- Zornotza
- Mañaria
- Mallabia
- Abadiño

tatik %80 Karrantza inguruan gertatu ziren. Iazko datuen arabera, Durangaldean Elorrión eta Zornotzan gertatu ziren erasoak. 2026an dagoeneko 41 kasu gertatu dira. horietatik 26 Karrantzan, eta gainerako herrien artean Durangaldean: Berrizen, Zornotzan, Mallabian, Mañarian eta Abadiñon.

Iñaki Arrazola Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuko buruak azaldu duenez, azken hamarkadetan handitzen joan diren saien kolonia handi bi daude Bizkaian: "Sai koloniarik handiena Karrantza ingurukoa da. Horren ondoren, Urkiola ingurukoa dugu". Kontuan izan behar da saien eragin eremua 100 kilometro ingurukoa dela.

Arrazolak argitu du putreen portaera-aldaketak hainbat arrazoiri erantzuten diela: "Azken 30 urteotan ganadu kopurua asko jaitsi da. Abelburu gutxiago egonik, mendietan ez dago lehen beste animalia. Gainera, 2000. urtean behi zoroen krisiaren eraginez, hildako animalia guztiak erretzen hasi ziren. Ondorioz, saia topatzen zebilen animaliak gutxitu egin dira".



ETORKIZUNEAN  
LANEAN

Ibilbidea zure esku

"EHUn Fisika ikasi nuen.  
Gaur NASA-rekin lan egiten dut"

Eneko Axpe,  
Fisikaria

[www.ehu.eus/ikasi](http://www.ehu.eus/ikasi)

## Pentsiodunak kalera, osasungintza publikoaren "hondatzea" salatzen

E. H. DURANGALDEA

Durangaldeko pentsiodunen mugimendua kalera irtengo da osasun zentroetako zerbitzuen "eten-gabeko gainbehera" salatzen. Ekainaren 19an, barikuan, manifestazioa egingo dute Durangon, udaletxeko plazatik hasita, 12:00etan. Egoera "jasanezina" dela diote eta osasun sistema "pribatizatze ahaleginetan" ibiltzea leporatu diote Eusko Jaurlaritzari "lankidetzako publiko-pribatua moduko eufemismoak" darabiltzalakoan.

Besteak beste, Alberto Martinez Osasun sailburuaren esanak kritikatu dituzte, hark "ebakuntzak egitera klinika pribatuetara jotzeko gonbita" egiten duelakoan. Pentsiodunek hiru eskaera na-

gusi plazaratu dituzte. "48 orduko epean aurrez aurreko kontsulta izatea medikuntzan eta pediatrian, espezialitateetan lehen kontsultak hiru hileko epean izatea gehienez, eta osasun sistemaren %100eko publikotasuna bermatzea".

### Itxarote-zerrenda "jasanezinak"

Osasun zentroetako itxarote-zerrendak "jasanezinak" direla ere adierazi dute pentsiodunek. Familia medikuagaz egoteko hitzorduak "10-15 egunetara" ipintzen direla kritikatu dute eta traumatologia moduko espezialitateetan "2028rako" hitzorduak ematen dabilzala gaineratu. Horrek guztiak herritarren "bizi-itxaropena arriskuan" ipintzen duela ohartarazi dute.



Iurretako pentsiodunen mugimenduko kideak mobilizazio batean.

## Ernai bere norabide berria azalduko du gaur Iurretako plazan

E.H. DURANGALDEA

Ernai gazte antolakundeak etorkizuneko erronkak eta jarduteko moduak aurkeztuko ditu Iurretan egingo duen ekitaldian. Aurreratu dutenez, "faxismoaren kontrako lanketa" eta "independentziarako bidea" izango dituzte lan-ildo, eta "asanbladak sortzea" horretarako tresna. Ernai Bergaran (Gipuzkoa) egin zuen bere kongresua, eta ildo berriari buruzko xehetasunak emango ditu eskualdean. Topaketan eskualdeko "100 gazte baino gehiago" batzea aurreikusi dute.

Munduak "gera giroa" eta "faxismoaren gorakada" bizi dituela eta, "Euskal Herritik hasita" erantzun gura dio errealitate horri, eta "independentzia" planteatu dute aterabide legez. "Fase historiko horretan, Ernairen eginkizuna faxismoaren kontra egitea da, independentzia horretarako tresna dela. Gazteria "askapen mugimendura batzea" eta "faxismoaren kontrako lanketa egitea" dira helburuak.

## Argiteria hobetu dute Garaiko San Migel auzoko tarte batean



Garaiko San Migel.

E.H. GARAI

Garaiko Udalak 10.600 euroko inbertsioa egin du San Migel auzoko argiteria hobetzeko; 21 farola eta hainbat detektagailu berri dituzte. Aurreko sistema zaharkituta zegoela eta, argiteria sistema berriztu du frontoiaren, San Migel elizaren, kultur etxearen, kirolgunearen eta landetxearen eremuan. Inbertsioak hainbat helburu du: gauzez argi nahikoa eskaintzea eta eremua segurua izatea; sistema zaharra ordezkatzeko eta energia aurrezteko; eta argi-kutsadura murrizteko, gorantz doan argitasuna apaldua.

## "Udabarririk zornotzarrei eta ondoan egoniko bidelagunei eskerrak egin ditu 60 urte"

IBAI URRUTXUA ETA IGONE IDIGORAS UDABARRI DANTZA TALDEKO KIDEAK

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Udabarririk dantza taldeak 60 urte egin ditu eta bertako kideek urte osora zabaldu dituzte ospakizunak, efemeridea herritar guztiakin batera ospatzeko. Joan zen zapatuan, taldeak igarotako belaunaldi guztietako 200 bat dantzari batu ziren Zelaietako frontoian, ikuskizun berezi batean dantzan. Udaren ondoren ez dute parrandaxo bat antolatzea baztertu.

### 60 urte. Ez dira gutxi, gero!

**Igone Idigoras:** Honaino heltzea gauza handia da. Ni txiki-txikitatib nabil Udabarrin, bost-sei urtegeaz hasi nintzen. Horregatik, niretzat beti-betiko taldea da, asko maite dudana. Euskal kultura bultzatzeko talde legez sortu zen, 1966an, baina ez dantzarako bakarrik, baita mendi irteerak, Euskal Herria ezagutzeko txangoak, Santa Ageda, Olentzero eta nekazaritza azoka antolatzeko ere. Eta 60 urte bete baditugu, hori zornotzarrei eta bidelagunei eskerrak lortu dugu. Izan ere, Zornotzako etxe gutzietan topatu daiteke Udabarririk taldera loturiko baten bat. Eta ez bakarrik dantzari legez, hemen jende askok parte hartu duelako trajeak josten, azokak eta ortutuak prestatzen, Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejirak antolatzen eta abar. Herri osoak parte hartu duenez, ospakizunek herritar guztiei begirakoak izan behar dute.

### Ibai, zu belaunaldi gazteago bateko kidea zara.

**Ibai Urrutxua:** Zazpi-zortzi urtegeaz hasi nintzen taldean, eta bertan eratu zen nire gaur egungo kuadrilla. Hamar-hamabost bat urtean egin genuen dantzan, eta gero, apurka-apurka, batzuk taldea uzten hasi ziren. 60. urteurrenean aspaldiko kideak berriro ere dantzan ikustea itzela izan da.

### Zelakoa da taldearen egoera?

**I.U.:** Orain pare bat urte edo, ume kopuru oso txikia genuen Udabarrin, sekula ikusi den txikiena. Baina jendeagaz berbetan hasi ginen eta taldera bueltatzeko proposamena egin genuen. Gure ostetik zetozenei



Ibai Urrutxua eta Igone Idigoras Udabarririk dantza taldeko kideak dira.

ere bai, dantzan egiten ikasi zezaten. Eta orduan mundu guztiari zabaldu genizkion ateak. Akorduan dut ehun pertsona baino gehiago batu zirela lehenengo bileretara. Eta hasierako euforia hori txikitu egin den arren, gaur egun 40 gazte berrik zein helduk jarraitzen dute astero etortzen. Dantzari Dantza bakarrik barik, Euskal Herriko beste hainbat dantza ere lantzen dugu. Eltziegokoak, Zuberoakoak, Otsagabiakoak, Gipuzkoako Sorgin dantza... Horrela, erakargarriagoa da dena.

**I.I.:** Bai. Iruditzen zait hainbat dantza taldetan gertatzen direla halako egoerak. Txikitatik hasten zara dantzan, gero uzten zoaz, eta halako batean taldera batzen zara berriro. Ibaik eta belaunaldi gazteko kideek bultzatuta, dantzari izandako hain-

bat lagun bueltatu da taldera. Gazteriak gazteria dakar.

### 60. urteurrena ospatzeko egun bakarra antolatu barik, urte osora zabaldu dituzue ekitaldiak.

**I.U.:** Joan zen zapatuan ekitaldi handia egin genuen frontoian. 200 bat dantzari batu ginen; baita musikariak, txistulariak eta laguntzaileak ere. Dantza ikuskizun bat egin genuen Euskal Herriko historia ardatz hartuta. Zazpi lurraldeetako bidaia baten parekoa izan zen. Lantalde oso bat egon da hori guzti hori antolatzen, eta aipatzekoa da, zelan ez, Aritz Labradorrek egindako zuzendaritza lana.

**I.I.:** Ospakizun sortako beste mugarri bat Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna Zornotzan egitea izan da. Lehenengoz egin da hemen. Ikusten? Eskualdea handitzen gabiltza! Durangaldeko herri legez onartu gaituzte azkenean! (barrez).

**I.U.:** Udaren ondoren bazkari bat egitea dugu buruan, parrandaxo bat. Herri osoari begirako ekitaldia izatea gura dugu, komunitate osoarentzako eguna, denok batzekoa, bazkaltzekoa. Inklusiboa, dantzariak direnentzat zein ez direnentzat.

**"Duela urte bi dantzari gutxi geunden. Orain, belaunaldi berriak batu dira taldera"**



# GREMIOEN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

## DEKORAZIOA



### JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztieta zaharberitzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A, BERRIZ  
658 758 42  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com

## ZURGINTZA



**leike** Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia

NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leike.eus  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf: 94 681 72 29

## ZURGINTZA



**ATERPE** ARBOTZALDE

EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar  
635 74 84 65  
www.carpinteraaterpe.com

## ELEKTRIZITATEA



ELECTRICIDAD JON

622 684 284  
electricidadjon@outlook.es

## ITURGINTZA



**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es



lazko San Antonio eguneko argazki bat.

## Hilaren 13an San Antonio eguneko azoka egingo dute Urkiolan

Ekainaren 13 eta 14an Urkiolara igo eta bajatzeko doako autobus zerbitzua jarri dute Abadiñotik eta Durangotik

### Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Zapatuan San Antonio eguna ospatuko dute Urkiolan. 10:00etatik 14:00etara ganadu eta baserriko produktuen azoka egongo da. Lehen sektoreko 34 postu, artisautzako 20 postu eta txosna bi egongo dira. Horiez gainera, zaldi eta ardi aziendak ere egongo dira. Azokak irauten duen tarte horretan, trikitilariak eguna girotzen arituko dira. Eta ohikoa den moduan, bertsolarien saioa ere egongo da. Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina arituko dira bertsotan. 12:00etan,

Mikel Añibarrok ardi mozketa erakustaldia egingo du santutegiaren ondoan. Eta ondoren, 13:00etan, Urkiolako harriaren ondoan, Iparragirre kantariaren *Gernikako Arbola* abestia kantatuko dute.

Aurten, zaldi aziendek protagonismo berezia izango dute eta karpa azpian egongo diren lau zaldiren artean hazitarako aberrik onena aukeratzeko herri lehiaketa bat antolatu dute, besteak beste.

Hurrengo egunean Errepetiziño domeka ospatuko dute. Egun

horretan ere, goizean zehar, baserriko produktuen azoka egongo da. 12:45ean herri kirolak egongo dira, eta 16:30ean erromeria Aiko taldeagaz.

### Autobus zerbitzua

Joan-etorriak errazteko, doako autobus zerbitzua ipiniko dute ekainaren 13an eta 14an Abadiñotik. Zelaietatik 9:00etan, 10:00etan eta 11:00etan irtengo da autobusa, eta Traña-Matienan geldialdia egingo du. Urkiolatik 17:00etan eta 18:00etan irtengo da bueltako autobusa.

Durangotik ere egongo da autobus zerbitzua, Bizkaiko Foru Aldundiak ipinita. Doakoa izango da eta egun bietan egongo da zerbitzua, San Antonio egunean eta Errepetiziño domekan. Autobusa Madalenako autobus geltokitik irtengo da eta etenik barik ibiliko da, 10:00etatik 19:00etara.



Joan zen asteko batzarreko argazkia. MALLABIKO UDALA

## Goi-tentsioko linea berriari Mallabitik igarotzeko baimena ukatu diote

### M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak prentsa ohar bidez eta herritarren aurrean egindako batzarrean jakinarazi duenez, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak emandako epaiak onartu egin ditu udalak ipinitako alegazioak. Batzar horren helburua UME eguzki plaka fotovoltaikoaren proiektuaren eta hari lotutako hustuketa-azpiegituraren inguruko informazioa eskaintzea zen. Kontua da Energia Inagotable de UME S.L. sozietateak sustaturiko goi-tentsioko linearen proiektua Aragoitik abiatzen dela eta hainbat ebakuzio linea dituela. Goi-tentsioko linea berri horren proiektuak Durangaldeko hainbat herri zehar

katzen du, tartean Mallabia. "Proiektuak zuzenean eragiten zion gure udalerriri eta alegazioak ipini genituen goi-tentsioko sareen aurka", azaldu dute.

Oharrean jakinarazi dutenez, 2026ko apirilaren 16an Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena eman zuen. Eta bertan azaldu zuten, UME Eguzki Instalazio Fotovoltaikoaren eta haren hustuketa-azpiegiturari aurretiaz emandako baimena ukatu zieten. Ondoren, espedienteak artxibatu zuten. "Udalak erantzukizunez, zorrotz eta irmo jokatu du Mallabiaren interesak, herritarren osasuna eta gure ingurunea babesteko", esan zuen Igor Agirre alkateak.

## Andoni Oilokiegi, Nevadah eta DJ Bull, besteak beste, Axpen

### M.Z. ATXONDO

Ekainaren 19tik 24ra bitartean, Axpen San Joan jaiak ospatuko dituzte. Hilaren 19an txopoa jasota ekingo diete jaiak, 20:30ean. San Joan egunera bitartean, egitarau zabala egongo da. Barikuan, Fossil, Fito Skins, Nevadah eta DJ Bull egongo dira. Zapatuan, sagardo eta sagar-zuku dastatzea, bakailao eta patata tortilla lehiaketa, eta Andoni Oilokiegi eta DJak egongo dira. Ekainaren 21ean, beste hainbat gauzaren artean, artisautza azoka egongo da. Ekainaren 24an amaituko dituzte jaiak.



lazko jaietako argazki bat.

## Berrizburuko ur-txorroen parkea martxan da

### M.Z. BERRIZ

Berrizburuko ur-txorroen parkea berriro martxan da beste urte batez. Doako gunea hau herritar guztien gozamenerako da.

Berrizburuko eremu berdean kokatutako gunea da eta hirugarren urtez jarraian zabaldu dute. Adin desberdinetako pertsonentzat diseinatutako hainbat ur-elementu ditu. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: tamaina desberdinetako ur-txorro bertikalak eta helize fomako ur-gortina bi, besteak beste.

Ur-txorroen gunea astelehenetik domekara egongo da zabalik, 10:00etatik 20:00etara.

## Berrizko gazteentzat laguntza etxebizitza alokatzeko

### M.Z. BERRIZ

Berrizko Udalak etxebizitza alokatzeko 2026ko laguntzen deialdia onartu du, herriko gazteei zuzendurikoa. Berrizko gazteen artean ohiko etxebizitzaren alokairurako laguntza ekonomikoak eskuratzeko aukera erraztea da deialdiaren helburua, iaz onuradunek euren gain hartutako alokairu gastuak diruz lagunduta.

Laguntza hauek 18tik 35 urtera arteko gazte emantzipatuek eskatu ahal izango dituzte.

Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaitzen da. Berrizko Udalaren Egoitza elektronikokoaren bitartez egin daiteke eskabidea.

# KAIXO, EUS NAIZ. EUSEBIO.



Eskuratu  
•EUS domeinua  
9 EUROAN.

**EUSEBIO**  
PUNTU  
•EUS

Erregistratzen laguntzeko,  
eskatu hitzordua:  
**EUSEBIO.EUS**



# Okm batzen gaituen distantzia

## ANBOTOKIDE

### EKAINEKO ZOZKETAK



**Uitzamaren**  
produktu sorta.



**Zelai Hotela**  
(Zumaia). Talaso saioa  
eta gosaria barne duen  
birentzako bonua.



**Xiberu tabernan**  
(Zornotza) bi gosari  
bikoitz.



**Mendexa**  
**Abentura**  
**Park**erako  
bost sarrera bikoitz.



**Aukan izozkiak.**  
6 izozki edo etxera  
eramateko 1/2 litroko  
2 tarrina. (Durango)

**EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE  
ETA PARTE HARTU  
GURE ZOZKETETAN!**



## Elorrion martitzenean egitekoa zen etxegabetze bat atzeratu egin dute

Emakume bat eta haren seme biak etxegabetzea aurreikusita zegoen



Etxegabetu behar zuten emakumea kalera irten zen bertaratuei eskerrak ematera.

**Joseba Derteano** ELORRIO  
Martitzen goizean, Alokabidek emakume bat eta haren seme biak etxegabetzeko asmoa zuen babes ofizialeko etxebizitza batetik, baina azken unean atzeratu egin zuten asmo hori. Du-

rangaldeko Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren deialdiari erantzunez, ehun bat lagun eraikinaren atarian batu ziren egoera salatzen. Etxegabetzea 10:00etarako aurreikusita zegoen. 10:15 aldera, protestaren deitzaileek

informatu zuten etxebagabetzea atzeratu egin zela, eta bertaratutakoak txaloka hasi ziren. Deitzaileek adierazi zuten ez zekitelarik atzeratzearen arrazoi zehatza. Auzia ez zela amaitu azpimarratu zuten eta datozen deialdiei "adi egoteko" eskatu zieten bertaratutakoei.

Sindikatuak sareetan salatu zuenez, familia 2009tik bizi da Galartzauria kaleko etxebizitza horretan eta "zaurgarritasun egoera aitortzen duten txostenak ditu". Sindikatuaren esanetan, emakumea "hainbat bider ahalgindu da Alokabidegaz modua adosten zorra ordaindu ahal izateko, baina erakunde publikoaren erantzunik jaso barik" heldu da etxea uzteko agindua. Sindikatuak dei egin die erakundeei "etxegabetzea eten eta zorraren ordainketaren inguruan berba egitera jesarri daitezten".

## Albokan Rollaren laugarren aldia egingo dute zapatuan Mañarian

**J.D. MAÑARIA**  
Kafrega elkarteak, udalaren laguntzagaz, Albokan Rollaren laugarren edizioa antolatu du zapaturako. Jardunaldia 11:00etan hasiko da, kalejira batez. Albokari eta trikitilariak giroa, herriko kaleak zeharkatuko dituzte jaiari hasiera emateko. Eguerdian, 13:00etan, herri kirolen txanda izango da. Bertan, Goizeder Abendibar, Uxue Ansozregi, Julen Larrea eta Jon Gisasola kirolariak arituko dira. Partaideak bazkari herrikoian batuko dira gero, 14:30ean.

Ondoren, 17:00etan, pilota txapelketa herrikoien finalak jokatu dira. Hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituen partidua jokatu da lehenengo, Xabi-Beñat eta Aratz-Liher bikoteen artean. Ondoren, Gerrika-Kano eta Peio-Martin txapelaren lehian arituko dira.

**Kontzertuak eta autobusa**  
20:00etatik aurrera, musika izango da protagonista. Garratz,

John Dealer and The Coconuts, Maraya and The Mad Wolfe eta Zydeco Brotherhood taldeek kontzertuak joko dituzte, doan. Jaiak goizaldera arte jarraituko du, 00:00etan hasiko diren DJ Shake & Roll eta DJ Melen saioekin. Antolatzaileek autobus zerbitzua ipiniko dute Mañaritik Durangora, 03:00etatik 04:00etara.



John Dealer. JUXE ARETA GOÑI

## Natxo Condek irabazi du Izurtzako jaietako kartel lehiaketa



Kartel irabazlea.

**J.D. IZURTZA**  
Natxo Conde Martinen kartelak iragarriko ditu Izurtzako jaiak irailean. Aurten pertsona bi aurkeztu dira kartel lehiaketara eta eurentariko batek kartel bi aurkeztu ditu. Epaimahaia Abadiñon bizi den gernikararen irudia aukeratu du jaiak iragaritzeko. Saria 350 eurokoa da. Kartela koloretsua da eta jaietako hainbat osagai islatzen du.

## Hitzarmena sinatu dute Goierri auzoko karobia zaharberitu ahal izateko

Labea lur pribatuetan dagoela eta, udalak akordioa sinatu du lurren jabeekin

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu du udalerriko familia batek, Goierriko karobi historikoa modu integrarean konpondu ahal izateko. Labea XIX. mendeko eraikina da, "balio kultural handikoa" udalaren berbetan, "baina azken 20 urteetan mantentze-lanik egin ez denez, gaur egun hondatuta dago, landarediak estalita eta ikusezin". Egoera horren aurrean, udalak "beharrezkotzat" jo du azpiegitura konpontzea, eta, hain zuzen ere, labea jabe go pribatuko lurretan dagoenez, eremu horretako familiagaz egin du hitzarmena. Akordioaren arabera, udalak bere gain hartuko ditu karobia eta inguruak garbitzeko lanak. Sastrakak kenduko ditu, eta ingurua txukundu. Eta behin hori egin da, txosten tekniko bat egingo



Karobia 2000an. ZALDIBARKO UDALA

du karobiaren egoera ebaluatzeko eta konponketak zehazteko. Era berean, udalak konpromisoa hartu du urtean behin mantentze-lanak egiteko. Hala, akordioak bigarren hitzarmen baterako bidea zabaltzen

du, etorkizunean labea guztiz konpontzeko eta inbertsio tekniko zein ekonomikoak zehazteko. Eneritz Azpitarte alkateak akordioa txalotu du eta eskerrak eman dizkio karobiko lurren familiari, erraztasuna emateagaitik ondarea zaintzeko.

### Ondare historikoa

Goierriko karobia Aixolarako bidean dago, Goenzelai Etxebarri baseritik gertu, eta 1997tik 2000. urtera bitartean zaharberritu zuten azkenengoz. Balendin Lasuen historialari zaldibartarrak dokumentatu zuenez, XIX. mende amaierako labea da, eta 1933-1934 urte aldera amatatu zuten. Lasuenek interesgarritzat jo zuen orain hainbat hamarkada labea berreskuratzea. Zaldibarko Udalak esan du haren berbek erabateko zentzua izaten jarraitzen dutela.

## URAK Oleta ibaiaren eskumako ertza atondu du Otxandion

**A.B. OTXANDIO**

Uraren Euskal Agentziak (URA) amaitu ditu Otxandion Oleta ibaiaren eskuineko ertza lehen-goratzeko eta egonkortzeko lanak Presazelaiko presa txikiaren inguruan. Iaz izandako ur-goraldi baten ondorioz, eskuineko presa-estriboaren zati bat hautsi zen, eta ibaiertzak higadura handia izan du harezkerok. Lanokin murriztu egin da arriskua Mekoletako jolas eremura joaten diren pertsonentzat, eta hobetu egin da ibilguaren ibai-jarraitutasuna, Uraren Agentziak azaldu duenez.

Obrak udalaren eta URAREN arteko lankidetzaz hitzarmenaren barruan egin dira, "udalerriko ibaietan ingurumena mantentzeko, kontserbatzeko, berreskuratzeke, leheneratzeko eta hobetzeko lanak koordinatuta garatzeko". Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren finantziazioa izan dute eta 46.000 euro inbertitu dituzte.

## Errobiren kontzertua eta Beleren proposamen berria, Mekoleta auzoan

**E.H. OTXANDIO**

Jai giroa nagusi izango da asteburuan Otxandioko Mekoleta auzoan. Gaur afari herrikoia egingo dute, eta ondoren kontzertua hasiko da. Galazota, Zeker eta Bele taldeak igoko dira oholtzara, 22:30etik aurrera. Lide Hernandok gidaturiko proiektuak soul eta rock doinuak bustiriko diskoa kaleratu zuen 2023an, baina Mekoletara ekarriko duena harago doa. Hernando Iñigo Etxarri musikariagaz batera izango da, musika elektroniko dantzagarria aurkezten: Bele raven.

Zapatuan Urduri dantza taldearen saioa egongo da, 17:00etan. Ondoren, Kapikua Circus-ek bere ikuskizuna aurkeztuko du.

### Errobi zuzenean

Euskarazko rockaren aitzindarietariko bat den Errobi taldea ere egongo da Mekoletan zapatuan. Anje Duhalde eta Mixel Ducau gitarra banagaz igoko dira oholtzara. Emanaldia be-

rezia izango da, Errobik behin betiko agur esan eta gero joko duelako. Musikari lapurtarrek euren hasierako denboretan legez joko dute: biek bakarrik. Kontzertua 19:30ean hasiko da. Gau giroa Luhartz taldeak berotuko du. Domekan Otxandio Udal Bandak joko du, 13:00etan. Ondoren, DJOn eta mariani-to-edana egongo dira.



Mixel Ducau eta Anje Duhalde.

## Ur-txorroak martxan daude Iurretan



Akondoko ur-txorrotak IURRETAKO UDALA

**A.B. IURRETA**

Iurretan martxan ipini dituzte ur-txorroak. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara daude erabilgarri, eta udalak erabilpen arduratsua egitea eskatu du. Bestalde, udalak esan du Maspeko berdegunea "sendotu" dutela. "Naturalizatutako espazio horrek birrika berde eta babesleku klimatiko egoki legez funtzionatzen du, landarediari, uraren hurbiltasunari eta itzalguneei eskerrak", esan dute. "Aterpe klimatikoak" sortzen jarraitzen dutela gaineratu dute.

# IZURTZAKO

## 3.KULTUR ASTEA

eka. 20

**Korralla Swing & Vermut**

Izena emateko:  
swingdurangaldea@gmail.com

eka. 21

**Artisau Azoka**

eka. 22

**Aitatxo dokumentala**

eka. 23

**Gabriela Guridi**

eka. 23

**San Juan Sua**

Izurtza
 Korralla
 MARIANITO

## Zornotza kultura errumaniarraren eta errusiar-lipoveniarraren topaleku

E.H. ZORNOTZA

Zapatuan, ekainak 13, Tilofest kultur topaketa egingo dute Zornotzan. 18:00etatik aurrera, Zubiondo plaza aniztasunaren erakusleho bihurtuko da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errumaniar eta errusiar-lipoveniar komunitateek jaialdia egingo dute eta. Jaialdia integrazioarako eta bizikidetzarako erreferente legez

finkatu da eta musikaz, dantzaz zein gastronomiaz beteriko egitaraua prestatu dute zaturako. Parte hartuko duten taldeen artean daude Juravca, A.C.E.V, Grupul Dorul Neamului, Alexandra Lis-trat eta Medea Ana Uram, Ghena-di Boldisor, Rodina elkarte eta Triki-Piu Band taldea. Eki-taldia Zornotzako Juravca elkar-teak antolatuta du, udalagaz batera.



Dorul Neamului taldea.

## Udalekuen garrantzia



JESICA RUIZ  
PSE-EE

Ikasturtea amaitzean daukagu dagoeneko, eta beraz, aurtengo udalekuen atarian ere bagaude. Haur eta Gazte Arloarentzat oso proiektu garrantzitsua da Udaro programa; adin-tarte desberdinetako 600 haur baino gehiago artatuko ditugu, eskaintza benetan oparoarekin: 120 plaza *Txiki txokorako* (3-5 urte), 120 plaza *Hirikanpamendurako* (6-10 urte), 72 plaza *Abenturarako* (11-14 urte), 100 plaza *Ingelesean olgetan* programarako (7-14 urte), 50 plaza kirol udalekuetarako (7-14 urte), 80 plaza udaleku artistikoetarako (3-10 urte), eta beste 60 plaza egoera zaugarriaren dauden haurrentzat.

Joan den urtean, berrikuntza gisa, iraileko udaleku artistikoa jarri genuen martxan; aurten, horrez gainera, beste nobedade bat daukagu: *Gazte Aktiba*, 15-16 urte bitarteko gazteentzat. Honela, gazteek eurek egindako proposamenari erantzuten saiatu gara. Bestalde, zenbait familien eskaerari ere erantzun nahian, behar bereziak dituzten haurrentzako plazak eskaini ditugu. Modalitate berri honetan aurten plaza gutxi eskaini ahal izan dugun arren, datorren urtean, programa lizitatu eta udalekuak inklusibo egiteko konpromisoa hartu dugu.

Sinetsita gaude modu horretan egin behar dela lan: lehenengo, herritarrak entzun; eta gero, jardun.

## DURANGALDEA ASTEON

## Mecanizados Ibaizabal enpresak jaso du Maristak ikastetxearen saria

DURANGO Durangoko Maristak ikastetxeak MKD Enpresa Sariak banatu ditu, hezkuntza esparruaren eta lan munduaren arteko lankidetzari gorazarre egiteko. Maristak ikastetxeak Mecanizados Ibaizabal enpresa saritu du aurten.



ARGAZKIJA BEA XXXXXXXX

## Martxan da 'Durangotik Hegoaldera' lehiaketaren hirugarren edizioa

DURANGO Martxan da Medicus Mundi Bizkaiak Durangoko Udalagaz lankidetzan antolatutako Durangotik Hegoaldera lehiaketa. Irabazleek Medicus Mundik Guatemalan garatzen dituen proiektuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. Izena emateko epea ekainaren 17an amaituko da.



## Elorrio Palestinarekin plataformak diru bilketa ipini du martxan

ELORRIO Elorrio Palestinarekin plataformaren eskutik, Elorrioko herritarrek eta hainbat elkarte, eragile sozial eta kulturek Palestinaren aldeko diru bilketa solidarioa abiatu dute. Ekarpentak Bizum bidez egin daitezke 14253 kodea erabilia edo transferentzia eginda.

## GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /  
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

**Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).**

## anboto

### ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenezkoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902



### Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

### Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

### Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

### Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

### Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Maialen Zuazubiskar

Gallastegi, Aritz Maldonado

Zabala.

### Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

### Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

### Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



### LAGUNTZAILEAK




Aldizkari honek Bizkaiko  
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kultura Sailak diruz lagundua



# BURUARI KLIK!



## KIMU KUKUKA

**NOLA DAKIGU ZER ZEGOEN LURREAN DUELA MILIOIKA URTE?**

HEZUR ERRALDOIN!

**Aurkitu duzu: Fossila**

HARRIETATIK ETA AZTARNATEGIETATIK ATERATZEN DITUZTEN FOSILAK AZTERTZEN DITUZTE PALEONTOLOGOEK, IRMAGANEN BAZITZA ETA ORDUKO GIROM BERRERAKITZEKO.

FOSILAK ARROKETAN KONTSERBATU DIREN ANTIZINAKO IZAKI BIZIDUNEN AZTARNAK DIRA.

**Oskolak**

ZATI GOGORRAK ERRAZAGO FOSILIZATZEN DIRA, DEGRADAZIOARI HOBETO ALURRE EGITEN DIOTELAKO.

**Aztarnak**

**Maskorrak**

HORIE ESKER JAKIN DEZAKEGU ZEIN ORGANISMO BIZI IZAN ZIREN DUELA MILIOIKA URTE...

...ETA, GAINERA, ZEIN HANDIAK ZIREN KALKULA DEZAKEGU!

BADIRA FOSIL KOPURU APARTAK DITUZTEN AZTARNATEGI BATZUK, LAGERSTÄTTE ZENKOKAK.

EA ZER EGITEN DUDAN ORAIN HWINBESTE FOSILEKIN.

HANDIENA MONGOLIAN DAGO.

**GobiKO BASAMORTUA**

ADIRI FOSIL BIZIDUNAK ERE BADAUDE.


BIZIDUNAKIP BAINA NOLA LITENKE HORIIP?

EZAGUTU GEHINGO FOSILEI BURUZ I-FILAK EDO BIZIARI ZIENTZIA KAJERA BLOGEAN.





# LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu



# MATEMATIKAK



ANTZERKIA

# "Txotxongiloen mundua magikoa da, oso iruditegi desberdinak sortu daitezke"

MIREN LARREA MURGOITIO ANITA MARAVILLAS

2005ean sortu zenetik, apurka sendotuz joan den proiektua da Anita Maravillas. MAX saria urteotako lanaren emaitza dela dio aktore zornotzarrak

Aitziber Basauri DURANGO

Umeentzako edo familientzako ikuskizunik onenaren atalean lorturiko MAX sariak erronka berriei heltzeko indarra eman dio Anita Maravillaseko lantaldeari. Miren Larreak (Zornotza, 1981) argi du aitortza kolektiboa izan dela, talde osoarena.

**Zer esan gura du MAX saria eskuratzeko Anita Maravillasen moduko konpainia batentzat?**

Txotxongilolari konpainia txiki bat gara, moduren batean independentea. Bat-batean, oso produktio handiak batzen dituen MAX sarietan egoteak txikiok ere gauza politak eta kalitatezkoak egin ditzakegula erakusten du. Lantalde osoari egindako errekonozimendua da. Izan ere, eszenan aktore bi baino ez gauden arren, atzean Euskal Herriko hamaika profesional dago. Zenbait erronka artistiko hartu dugu eta publikoak ondo erantzun du. Sari honek erakusten du sektoreak ere ulertu dituela eta ondo hartu dituela erronka horiek. Eta horrek orain arteko bidean jarraitzeko indarra eman digu, gure intuizio artistikoei eusteko gogoa. Antzoki eta aretoek guran ipinitako konfiantzari erantzuteko modua ere bada.

**Errepublikara garaiak omen- du gura izan dituzue 'Andereño' antzezlanageraz. Baina munduan egon diren eta gaur egun dauden gatazken isla ere izan daitezke.**

Aspalditik kaxoian gordeta genuen proiektua zen *Andereño*, eta errespetu handiz tratatu gura genuen. Barkuetan gerratik ihes egiteko eramandako umeen irudiei tiraka hasi ginen lanean. Umeen lekua eskola da, lagunekin egotea, jolasa... inoiz ez gerra. Hartara, garai hartan eta hurrengo belaunaldietan ere eskoletan andereñoek egindako lanari erreparatu genion. Errepublikako andereño haiek hezkuntzaren botere eraldatzailan sinisten zuten, hezkuntzak duen garrantzian. Beraz, bokazioa ere baden ofizio horri, eta zer esanik ez gerra testuinguru batean, omenaldia egitea pentsatu genuen. Memoria histo-

**"Orain arteko bideari jarraitzeko indarra eman digu, gure intuizio artistikoei eusteko gogoa"**

rikotik abiatuta estreinatuta behar zen, baina nazioartean egoera geroago eta krudelagoa da. Eta antzokietan ikusi dugu oso presente dagoen gaia dela, orduan- go bizipenak eta gaur egungoak guztiz lotuta daudela. Umeak ume dira, orain 80 urte eta gaur egun, eta gerra egoera bat bizi behar izatea oso gogorra da. Ipuinen berbakera erabili dugunez, modu itxaropentsuan osatu dugu istorioa. Umeak dauden lekuan beti dago itxaropen aldarri bat.

**Zelako harrera izan du 'Andereño' antzezlanageraz hiru urte hauetan?**

Zoragarria. Adineko publikoa aretotik oso hunkituta irteten ikusi dugu. Eta umeak milaka galdera eginez. Izan ere, *Andereño* ez dago bakarrik umei zuzenduta. Jasotako feedback-a zoragarria izan da. Gainera, umeak filosofo txikiak dira, eta askotan oso galdera zuzenak eta zentzudunak egiten dituzte.

**la ez duzue barbarik erabiltzen, eta mugimendua eta estetika berebiziko garrantzia hartzen dute.**

Antzerki bisuala gustatzen zaigu, eta mugimendua baliatuta sortzen ditugu ikuskizunak. Txotxongiloa mugimenduan



dagoen poesia da guretzat. Hortik abiatuta, berba batzuk erabiltzen ditugu beti, istorioaren zerbitzura. Miren Amurizak egin ditu obrako testuak. Asko zaintzen dugu testua noiz eta zertarako sartu. Batez ere, iruditegiaren bidez sortzen dugu lana. Gainera, Fran Lasuenen musika zoragarriak eszena osoa darama publikoarengana.

**Zelakoa da txotxongilolariaren eta aktorearen arteko lotura?**

Anita Maravillas txotxongilo tailer batean jaio zen, Bartzelonan (Herrialde Katalanak). Guretzat

**"Antzerki bisuala gustatzen zaigu, eta mugimendua baliatuta sortzen dugu beti"**

tailerra funtsezkoa da, eta istorioagaz batera ipintzen da mar txan. Txotxongiloekin dugun konpromisoa handia da. Pertsonaiak geure buruan sortzen ditugu lehenengo, eta Valentina Raposok gero egiten ditu. Aktoreak apurka egiten du bidea txotxongiloagaz. Txotxongiloen mundua magikoa da, oso iruditegi desberdinak sortu ditzakezulako. *Andereño* antzezlanagerako animaliaz beteriko eskola bat sortu dugu.

**'Tretatxu' antzezlanageraz zaudete orain buru-belarri.**

Bai. Su txikian lan egitea gustatzen zaigu, 2-3 urteko sortze-prozesuak ditugu. Orain *Tretatxu* bidelapur bizkaitarraren antzezlanageraren azken txanpan sartuko gara. Orain arteko lan guztia eszenatokira eraman eta obra eraikiko dugu. Urrian estreinatuko dugu.



**OSATU ZURE PROFILA  
ETA IRABAZI!**

TOKIKOM LIGA

**egunean behin?**

**Anbotogaz  
jokatzeak  
saria dakar!**



Parte hartu EguneanBehin-eko Tokikom Ligan  
ANBOTO (DURANGALDEA) taldeagaz

## ANTZERKIA

## Herri elkarteek zabalduko dute Iurretako XX. Kalez kale jaialdia

Ekainaren 18tik 21era bitartean sei kale ikuskizun aurkeztuko dituzte. Askondon eta Dantzarin izango dira

A.B. IURRETA

Iurretako Kalez Kale antzerki jaialdia kaleko artearen balioa nabarmentzeko helburuagaz jaio zen orain 20 urte, eta urteurren borobil honetarako ekitaldi berezia prestatu dute egitaraua zabaltzeko: Herri elkarten kalejira ibiltaria. Iurretako komunitate osoa inplikatu duen inaugurazio ekitaldi parte hartzaile horregaz "jaialdiaren izaera herrikoa, parte hartzailea eta komunitarioa" indartu gura dute, udal ordezkariak azaldu dutenez. Bakixako kultur elkarteak, Jai Giro, Anderebide, Fasoden, Teatropiezoz, Andbolo, Maiztegi guraso elkarteak eta Mikel Deuna dantza taldea bako dira ekitaldira.

Deabru Beltzak taldeko Oscar Castaño 'Garbitxu' zuzendariagaz batera osatu dute egitaraua, eta Iurretak Euskal Herriko kale antzerkiari emandako babesa eskertu du Castaño: "Bertako produkzioak babesten dituen Euskal Herriko kale antzerki bakarra da Iurretakoa", nabarmendu du. Ikuskizun guztiak Askondon izango dira, Eriz Magoarena izan ezik. Dantzari plazan izango da hori.



Udal eta herri elkarteetako ordezkariak.

### Ekainak 18

- 19:00etan, Herri elkarten kalejira ibiltaria.

### Ekainak 19

- 18:00etan, *Matraka Culinary* (Trakamatraka).
- 19:30ean, *El peor espectáculo del mundo, de momento!* (Zanguango Teatra).

### Ekainak 20

- 18:00etan, *Kay Robot* (Ameztu antzerkia).
- 19:30ean, *Eraitsi S.L.* (Goitibera).

### Ekainak 21

- 13:30ean, Eriz Magoa.

## DANTZA

## Lindy hop dantzek eta swing doinuek Durango hartuko dute gaur

Aritz Maldonado DURANGO

Durungaldeko Swing Taldeak lindy hop klase irekia eskainiko du gaur Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan. Ondoren, Bart...Sax! taldeak swing erritmoetan oinarritutako kontzertua emango du Ezkurdin.

Lindy hop dantza swing musikagaz batera sortu zen, 1920ko hamarkadako komunitate afroamerikarraren inguruan. "Komunitate afroamerikarraren adierazpen kultural legez jaio zen, eta gaur ere bere energia, jario-tasuna eta izaera ireki eta parte hartzaileagaitik nabarmentzen da", azaldu dute udal iturriek. Bart...Sax! taldeak eta Korrala Sormen Guneak hainbat tailer

eta jardunaldi antolatu dute elkarlanean, dantza estilo hori herritarrengana hurbiltzeko.

Gaurko dantza klase irekia 17:00etan hasiko da. Parte hartzeko, izena eman beharko da [korralla@ganso.info](mailto:korralla@ganso.info) helbide elektronikora idatzita edo 678 495 082 telefono zenbakira deituta; bost euro ordaindu beharko dira. Itziar Castrillok zuzentzen duen Bart...Sax! taldeak swing erritmoetan oinarritutako kontzertua emango du Ezkurdin, 19:00etan. Hamahiru pieza interpretatuko dituzte, big band formatuan, eta Elaia Berrojalbiz abeslari gaztearen ahotsa izango da protagonista horietariko askotan.

## LITERATURA

## Durango Julene Azpeitia literatura sariak banatuko dituzte

A.M. DURANGO

Julene Azpeitia literatur lehiaketaren 43. edizioa egin dute aurten, eta domekan sari banaketa ekitaldia egingo dute, 12:00etan, Arte eta Historia Museoa. Aurten 218 ipuin, 14 olerki eta 29 bertso aurkeztu dituzte parte hartzaileek.

Lehiaketa euskarazko idazketa bultzatzeko eta literatur talentuari balioa emateko helburuagaz antolatzen dute eta 18 urtera arteko haur eta gazteei zuzenduta dago. Lanek originalak, argitaratu gabek eta euskaraz idatzitakoak izan behar dute; ez dira onartzen adimen artifizialagaz egindako lanak eta itzulpenak.

## ERAKUSKETA

## Pintura tailerreko lanak ikusgai

A.B. DURANGO

Durango udal pintura tailerreko lanak ikusgai daude Ezkurdin aretoan, ekainaren 21era bitartean. Teknika eta estilo pikturikoak ez ezik, parte hartzaile bakoitzaren bilakaera pertsonal eta artistikoa islatzen dituen erakusketa da. 18:00etatik 20:00etara dago zabalik aste barruan, eta 12:00etik 14:00etara asteburuan.



Udal pintura tailerreko irudi bat. DURANGOKO UDALA

## GAI LIBREAN



GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO  
DURANGOKO MUSEOA

## Zorionak

1986ko ekainaren 13an, San Antonio egunean, zabaldu zituen lehen aldiz atek Durango Arte eta Historia Museoa. Etxezarreta jauregian kokatua, museoaz gain artxiboa eta biblioteka ere hartzen zituen eraikinak. Leopoldo Zugazaren zuzendaritzapean, historia, etnografia eta euskal arte garaikidea izan ziren lehen bildumaren ardatzak. Urteek aurrera egin ahala, museo ere aldatuz eta haziz joan da. 1995ean, biblioteka Garai Jauregira lekualdatu zenean, aldi baterako erakusketek hartu zuten bere lekua. Joseba Aizpuruaren zuzendaritzapean, erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak eta bestelako jarduerak ugaritu ziren, museo topagune bizi bihurtuz. 2016an hartu zuen Aizpuruaren erretiroa, eta urte bereko ekainean heldu nintzen ni museora. Harrezkero hamar urte igaro dira. Pentsatzeak harritu egiten nau: museoaren berrogei urteko historiaren laurden batean aritu naiz lanean.

**"Pentsatzeak harritu egiten nau: museoaren berrogei urteko historiaren laurden batean aritu naiz lanean"**

**"Zuek zarete urte hauetan guztietan espazio hau bizirik mantendu duzuenak. Horregatik, zorionak"**

Denbora honetan artista, lankide, lagun eta bisitari ugari ezagutzeko aukera izan dut. Horregatik, urteurren hau ez da eraikin baten edo erakunde baten ospakizuna soilik; museo hau posible egin duzuen pertsona guztien ere bada. Bertatik pasa diren artistena, erakusketetara etorri zaretenona, hitzaldietan parte hartu duzuenona, tailerretan sortu duzuenona, kontzertuetan gozatu duzuenona, ikastera, deskubritzera edo, besterik gabe, denbora partekatzen etorri zaretenona.

Museo batek ez du zentzurik bere publiko gabe. Zuek zarete urte hauetan guztietan espazio hau bizirik mantendu duzuenak. Horregatik, zorionak gure museoari, baina baita zuei ere. Eta, batez ere, eskerrik asko. Museoko atek zabalik izango dituzue etorkizunean ere, beste urte askotan elkarrekin ikasten, sortzen, sentitzen eta ospatzen jarraitzeko.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.  
946 232 523 / agenda@anboto.org

### BARIKUA 12

- **DURANGO Batukada**  
Tabira auzo elkarteak antolatutako tailerra. Tabira auzoan, 18:00etan.
- **DURANGO Sugarri fanfarrearen kalejira**  
Fanfarreak 50. urteurrena du. Alde Zaharrean, 19:30ean.
- **DURANGO Bizkaiko Herriarteko Esku Pilota Txapelketa**  
Ezkurdi Jai Alai frontoian, 19:30ean.
- **DURANGO Udal pintura tailerreko lanak**  
Ezkurdi aretoan, ekainaren 21 era arte.
- **IURRETA 'Un sombrero de paja de Italia'**  
Banarteren 17. Antzerki Tailerreko lana, Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **IURRETA Abadetxeko II. Tribiala**  
Abadetxean, 19:30ean.
- **OTXANDIO Mekoletako Jaiak**  
Herri afaria, 21:00etan (txartelak Fondan eta Arkoxen). Kontzertua: Galazota + Zeker + Bele (Raven), 22:30ean.
- **ZORNOTZA Trikiti kontzertua**  
Soinutxikie trikiti eskola. Zornotza Aretoan, 20:00etan.
- **ZORNOTZA Aerofonoak: Munduko Haizeak**  
Erakusketa. Zelaia zentroan, uztailaren 3ra bitartean.

### ZAPATUA 13

- **ABADIÑO San Antonio Eguna**  
Ganadua eta baserriko produktuak (10:00-14:00), Urkiolan. Trikitilariak, 11:00etatik 14:00etara. Ardi-mozte erakustaldia Mikel Añibarroren eskutik, 12:00etan. Iparragirre kantariaren 'Gernikako arbola' kantuz, Urkiolako harriaren ondoan, 13:00ean. Angel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina bertsolarien saioa. Zelaieetatik autobusa irtengo

da, 09:00etatik 11:00etara, orduero (Traña-Matienan geratuko da). Urkiolatik 17:00etan eta 18:00etan irtengo da autobusa.

- **ABADIÑO Kultur jardunaldia**  
Senegaleko kultura ezagutzeko jardunaldia, M'Lomp kultur elkarteak antolatuta. Senegaleko janari eta edari tradizionala eskainiko dute. Artista gonbidatuak: Vincent Diagne eta DJ Gabi Traña-Matienako eskoletan, 13:00etan.
- **DURANGO Artisau Azoka**  
Eixu artisautza elkarteak antolatutako azoka, Andra Mariko elizpean, 11:00etatik 21:00etara. Material naturalekin egindako makrame saioa, 12:00etan.
- **DURANGO Jolas Eguna**  
Umeentzako egurrezko jolasak, Murueta Torre auzoan, 11:00etan
- **DURANGO Kuadrillen Eguna**  
Alde Zaharreko tarbenariak antolatuta. Kazolen prestakuntza girotzeko, Kantari, Alde Zaharrean, 13:00etan. Kuadrillen bazkaria, 15:00etan. Kantari, 17:30etik 19:00etara. Sakatu elektrotxaranga, 19:00etatik 22:00etara.
- **DURANGO XXII. Zestapunta Txapelketaren Finalak eta Euskal Pilota Maratoia**  
Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, 16:30ean.
- **DURANGO Intxaurre Eguna**  
40. urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta antolatu dute Intxaurren. Eskulanak, 12:00etan. 'Etxetxoak' haur eta helduentzako ipuin kontaketa Mireia Delgadoren eskutik, 12:30ean. '40 urte!' txupinazoa, 13:00etan. Ondoren, gildak eta sagardo upelaren irekiera. Bazkaria, Zigor Iturrietak kozinatuta, 14:30ean. 'Intxaurretik herrire' ekitaldia eta topa, 16:00etan. JunTaJo taldea, 16:30ean.



BOGORODITSIE ABESBATZA

**DURANGO Kontzertua**  
Durangoko Bogoroditsie abesbatzak 30. urteurrena ospatzen du aurten eta egindako ibilbide artistikoaren isla izango den emanaldia egingo dute zapatuan. Izaera sakratudun hainbat abesti kantatuko dute; tartean, Eric Whitacrek konposatutako *When David Heard*. Abesti berriak ere estreinatuko dituzte. Uribarriko Andra Mari basilikan, ekainaren 13an, 20:00etan.

- **GAR + LUKIEK + KENE**.mp3, 21:30ean.
- **ELORRIO 'Haizeak dakarrena'**  
Bidaia musikala Elorrioko Musika Eskolaren eskutik: Besaide Band (Elorrioko ikasle gazteak) + Danel Arteaga + Xagu (Iheskide) + Erika Lagoma + Etxe + Taline elkarte humanitarioa. Arriola antzokian, 18:30ean.
- **MAÑARIA Albokan Rolla**  
Albokalariak eta trikitilariak, 11:00etan. Herri kirolak, 13:00etan. Bazkari herrikoia, 14:30ean. Bazkalostean Petite eta Lagunak. Esku pilotako txapelketa herrikoiko finala, 17:00etan. Garratz + John Dealer and The Coconouts + Maraya and the Mad Wolfe + Zydeco Brotherhood, 20:00etan. DJ Shake & Roll eta DJ Mel, gauean.
- **OTXANDIO Mekoletako jaiak**  
Urduri dantza taldea, 17:00etan. Kapikua Circus, 18:00etan. Errobi, 19:30ean. Eusko Label pintxoak, 20:00etan. Luhartz, 21:00etan.
- **ZORNOTZA XLV. BBK Abesbatzen Kontzertuak**  
Abes Kimu, Coral Zornoza eta Bakioko abesbatza, Zornotza Aretoan, 19:00etan.
- **GAR + LUKIEK + KENE**.mp3, 21:30etara. Herri kirolak: Hodei Ezpeleta, Malen Barrenetxea, Nerea Arruti eta Bihurri aizkoran; Izadi Agirre harri jasotzen; Ainhoa Larrinoa, ingudean eta txingekin; eta Karlos Aretxabaleta iparraldeko jokoetan. Urkiolan, 12:45ean.
- **DURANGO Sagardo Eguna**  
Euskal Sagardoa jatorri deitura duten sagardotegien postuak, janari postuak eta kata-gunea (Mikel Garaizabalek gidatuta), Fuzank musika taldeak girotuta. Merkatu Berrian, 12:00etatik 15:00etara.
- **DURANGO Julene Azpeitia Literatur Lehiaketaren sari banaketa**  
Ipuinak, olerkiak eta bertso-koplak. Arte eta Historia Museoa, 12:00etan.
- **DURANGO Dantza**  
Jaizale Durangaldeko Txistulari Elkartearen, B. Ertzilla Musika Eskolako Txistularien, Txoritxu Alai, Tronperri eta Kriskitiin dantza taldeen parte hartzeagaz, kalejira eta dantza erakustaldia. Durangoko kaleetan zehar (Merkatu Plaza, Monagotorre, Pablo Pedro Astarloa, Andra Mari, Joxe Miel Barandiaran, Ezkurdi), 12:00etan.
- **DURANGO Tabira Musika Banda**  
Andra Mariko elizpean, 19:00etan.
- **DURANGO Udako Dantzaldia**  
Ezkurdiin, 18:30etik 20:30era.

### DOMEKA 14

- **ABADIÑO Azoka**  
Baserriko produktuen azoka. Urkiolan,

- **OTXANDIO Mekoletako Jaiak**  
Otxandioko udal banda, 13:00ean. DjOn eta marianitada, 14:00etan.
- **ZORNOTZA San Antonio Jaiak**  
Kotxe klasikoaren topaketa Inbisa industrialdean, 10:00etatik 13:30era.

### EGUENA 18

- **IURRETA Herri elkarte kalejira ibiltaria**  
Kalez Kale Euskal Mostraren XX. edizioa abiatzeko kalejira. Askondon, 19:00etan.
- **ZALDIBAR 'Saharako egoera eta etorkizuna'**  
berbaldia. Hizlariak: Nayua Jatri Aduh (Sahararen aldeko aktibista) eta Mojtar Labuchi Emboiric (EAEko Frente Polisarioko arduraduna). Castet elkartearen, 18:30ean.

### BARIKUA 19

- **ATXONDO Sanjoanak**  
Atxondoko II. Pilota Goxua Txapelketa, 17:30ean. Pintxo potea, 19:30ean. Txopoa altxatzea, 20:30ean. Fossil + Fito Skins + Nevadah + Dj Bull, 21:30ean. Axpe auzoan.
- **DURANGO Pelota Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia**  
Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, 17:00etan.

### ZINEMA

#### DURANGO

##### ZUGAZA ZINEMA

- **El día de la revelación**  
Barikua: 17:30, 19:30. Zapatua: 17:30, 20:30. Domeka: 16:45, 19:30. Astelehena: 17:30, 20:15. Martitzena: 17:30, 20:15. Eguaztena: 19:00.
- **Eleonora Duse, la divina**  
Barikua: 20:30. Zapatua: 20:30. Domeka: 19:30. Astelehena: 17:45. Martitzena: 17:45. Eguaztena: 19:00.
- **Scary Movie 6**  
Barikua: 17:30. Zapatua: 17:00. Domeka: 17:00. Astelehena: 20:15. Martitzena: 20:15.
- **La luz**  
Barikua: 18:00. Zapatua: 18:00. Domeka: 17:00. Astelehena: 17:45. Martitzena: 17:45.
- **Backrooms**  
Barikua: 20:30. Zapatua: 19:00, 21:30. Domeka: 19:30. Astelehena: 20:15. Martitzena: 20:15. Eguaztena: 19:00.

#### ZORNOTZA

##### ZORNOTZA ARETOA

- **Las ovejas detectives**  
Domeka 14: 17:00, 20:00. Astelehena 15: 20:15.

#### XV. Peter Memoriala Pilota Txapelketaren finalak, 19:30ean.

- **ELORRIO Kontzertuak**  
Zeker + Uda. Portalekuan, 20:30ean.
- **IURRETA Alboka, pandero, atabal eta dultzaina erakustaldia.**  
Abadetxean, 19:00etan.
- **IURRETA XX. Kalez kale Jaialdia**  
*Matraka Culinary* (Trakamatraka) ikuskizuna. Askondon, 18:00etan. *El peor espectáculo del mundo, de momento!* (Zanguango Teatro), 19:30ean.
- **MALLABIA 'Beste zerbait' liburuen aurkezpena**  
Oihana Arana eta Miren Amuriza bertsolariekin. Gai-jartzailea: Danele Sarriugarte. Kontzejzarrean, 18:00etan.

XXXXXXXXXX

# "Athleticen hasieratik esan zidaten ehuneko ehunean nigaz kontatzen dutela"

**IRENE OGUIZA MARTINEZ**  
ATHLETICEKO JOKALARIA

Irene Oguiza durangarrak beste hiru urtez luzatu du Athletic Clubagaz duen lotura, 2029ra arte

**Joseba Derteano** DURANGO

Zazpi denboralditan lehenengo taldean finkatu eta kapitainaren besokoa jantzita, Irene Oguiza Martinez (Durango, 2000) erdi-laria klub zuri-gorriaren erreferenteetariko bat bihurtu da 26 urte gaz. Orain arte egindako bidean lesio larriei ere aurre egin behar izan die, baina esperientzia horiek indartsuago egin dutela dio. Onartu du aurten ez dutela denboraldi ona egin, baina etorkizunari itxaropentsu begiratzeko moduko taldea dutela uste du.

**Kontratu berritzeko prozesua arina izan da ala bere denbora eraman du?**

Egia esanda, prozesu azkarra izan da, nik nahiko argi neukalako Athleticegaz jarraitu gura nuela. Gainera, klubak nire aldeko apustua egin du eta alde biak oso pozik gaudela esango nuke.

**Zer izan da Athleticen partetik gehien konbentzitu zaituena kontratua sinatzeko?**

Oso maitatua eta ondo baloratua sentitu naizela hemen. Hasieratik esan zidaten ehuneko ehunean nigaz kontatzen dutela eta taldearentzat eta klubarentzat oso jokalaria garrantzitsua nintzela. Horrelako berbak entzunda, nor ez luke sinatuko?

**Orain hamarkada bat Lezamara heldu berri zen Ireneri gaur egungo egoera kontatuko bagenio — Athleticen kapitaina zarela eta kontratua berritu duzula —, zer esango luke?**

Hasieran ez zuen sinetsiko halako ibilbidea egingo zuela. Gaur egungo Irene ere egoera apur bat asimilatzen dago oraindino. Azken batean, egunerokotasunean murgilduta, ez diozu buelta askorik ematen egindako ibilbideari, baina urte batzuk barru atzera begiratu eta egindako bidea ikustean, gehiago baloratuko dudala esango nuke. **Urte hauetan zer aldatu da gehiago, Irene jokalaria ala pertsona?**

Pertsona esango nuke, askogaitik gainera, ze futbolak asko laguntzen dizu pertsona legez hazten. Jokalari legez ere aldatuko nintzen handik edo hemendik, baina batez ere pertsona legez aldatu naizela sentitzen dut.

**Belauneko lesio larriak izan dituzu. Atzera begirata, lesioek zenbateraino egin dute gaur egungo Irene?**



Oguiza, kontratu berria iragartzen duen kamisetagaz. ATHLETIC CLUB

Irakaspen garrantzitsuak barneratu ditudala uste dut. Azken batean, egoera txarretatik gaur pozitiboak ateratzen ahalegindu behar dugu beti. Hori erakutsi didate lesioek. Asko ikasi dut bakarrik entrenatzen.

**"Hasierako helburua apur bat gorago amaitzea zen. Alde horretatik, ez da urte ona izan"**

Orain, taldeagaz egiten ditudan entrenamendu guzti-guztiak baloratzen ditut. Prozesu gax horietatik asko ikasi dut eta ez nuke gertatutako ezer aldatuko. Lesioek niretzat garrantzitsua den jendea ezagutzera eraman naute, gaur egun oso lagun onak direnak.

**Taldeko kapitaina zara. Zer eskatzen dizu rol horrek zelaian eta zelaitik kanpora?**

Batez ere zelaitik kanpora eskatzen du gehiago: taldekideei laguntzea eta batez ere gazteak diren jokalariei apur bat era-

kustea Athleticek eskatzen duen eguneroko lana. Gure taldea oso gaztea da eta lehenengo taldean askotan jokatzeko duen 18 urteko jokalariai daude. Eguneroko lanari garrantzi handia eman behar zaiola erakutsi behar zaie, ze bestela luzera begira aukerak amaitu egiten dira. Zelai barruan gehiago da unean uneko egoerak kudeatzea, taldekideei beti mezu positiboak ematea eta horrelako kontuak. **Liga zazpigarren amaitu duzue, seigarrenarengandik puntu batera. Denboraldiaren zer balorazio egiten duzue?**

Denboraldi hasierako helburua apur bat gorago amaitzea zen. Iaz laugarren geratu ginen. Alde horretatik, ez da urte ona izan. Egoeragaz sufritu dugun lehenengoak jokalariai izan gara, emaitzak ez direlako heldu. Egiten dugun interpretazioa da 90 minutuetan detaileak zaindu ezik normalean galdu egingo duzula. Partidu nahikotxotan azken minutuetan edo deskantsutik bueltan sartu dizkigute golak. Hori apur bat aldatu behar dugu, eta horretatik ikasi daterren urterako.

**Zelako urtea izan duzu arlo pertsonalean?**

Partidu asko jokatu dut eta pozik nago. Horixe da nire helburua hurrengo urteetara begira, ahalik eta gehien jokatzeko eta taldeagaz ahalik eta gehien egotea, horixe delako taldeari gehien laguntzeko modua. Uda honetan lan asko egingo dut denboraldiurrean sasoi betearen egoteko. **Lehen aipatu duzu gazte asko dabilela jokatzeko. Apur bat heltzea falta zaio taldeari?**

Egia da talde gaztea daukagula, baina lehenengo mailan partidu asko jokatzeko jokalariai ere badaude. Beraz, esperientzia duen taldea ere bada. Uste dut nahasketa interesgarria dela. Talentu handia daukagu eta hortik abiatuta oso gauza onak lortu ditzakegulakoan nago.

**Zugaz gainera, badago Durangaldeko beste jokalaririk taldean?**

Irati Martin durangarra. Athletic B taldeko jokalaria da, baina denboraldiko azken zatian lehenengo taldeagaz entrenatzen aritu da. Etorkizuna duen jokalaria dela esango nuke. Hegaleko jokalaria azkarra da eta oso dohain onak ditu.

**Zein da Athleticen bete gura zenukeen amets bat?**

Tituluren bat irabaztea. Egundokoa litzateke!



Jon Uriarte Athleticen presidentea eta Irene Oguiza, kontratua sinatzen. ATHLETIC CLUB

## TXIRRINDULARITZA

## Mankomunitateak belodromoaren gaia lideratzea eskatu dio Aldundiari

E.H./J.D. BERRIZ

Berrizko belodromoa estaltzeko auziak beste bira bat izan du azken egunetan. Joan zen astean, Bizkaiko hainbat txirrindularik azpiegitura "lehenbailehen" estaltzea eskatu zioten Mankomunitateari. Eta, orain, azken horrek iragarri du belodromoaren "lidergo instituzionala" hartzea planteatuko diola Aldundiari. "Bere ezaugarriengaitik eta izan dezakeen erabilerarengaitik, erreferentziazko azpiegitura bihurtu daitezke Bizkai osorako, eta, ondorioz, haren etorkizuna ezin da bakarrik Durangaldearen gaitasun ekonomikoaren ikuspegitik aztertu", arrazoitu du

tokiko erakundeak ohar batean. Mankomunitatearen esanetan, kirol azpiegitura estaltzeak 6,8 milioi euroko inbertsioa izango luke, eta kopuru horretako 3,5 milioi Durangaldeko instituzioak berak hartuko lituzke bere gain. Konpromiso ekonomiko horrek erakundearen finantza gaitasuna eta zerbitzuei erantzuteko aukera "oso modu nabarmenean" baldintzatuko lukeenez, haren "lidergoa" hartzea proposatuko diote Aldundiari. Mankomunitateak jakinarazi du eskualdeko alkateekin batu dela "etorkizuneko aukeren eta erronken inguruko gogoeta partekatua" egiteko.



Berrizko belodromoa Berrizburun dago.

## ZESTA-PUNTA

## Euskal Jaia txapelketako finala jokoan, zapatuan

J.D. DURANGO

Durango kirolaren topagune bihurtuko da asteburuan. Herriko klub eta elkarteek askotariko kirol diziplinak ezagutaraziko dituzte Landako Gunean, herritarrek bizimodu osasungarrira batzera deitzeko. Horretarako, kirol erakustaldiak egingo dituzte eta informazio guneak ipiniko dituzte herritarren zerbitzura. Egitaraua zapatuan hasiko da, eta goizean (10:00-14:00) zein arratsaldean (16:00-20:00) egingo dituzte saioak. Domekan, jarduerak gizean baino ez dira izango, 10:00etatik 14:00etara. Horietan guztietan kirol jardueretara gerturatzeko aukera egongo da: futbolera,

Jardunaldiak, gainera, Joko Garbiko erakustaldi-partidu bat hartuko du. Izan ere, modalitate historiko horregaz inauguratu zuten Ezkurdi frontoia 1881ean, *Chiquito de Eibar* zestalari mitikoagaz.



Txapelketako partidu bat. LUIS ITURRIOZ



Kirol klubetako eta Durango Udaleko ordezkariek aurkezpenean. DURANGOKO UDALA

## KIROLA

## Durango 21 elkartek kirol eskaintza plazaratuko dute asteburu honetan

E.H./J.D. DURANGO

Durango kirolaren topagune bihurtuko da asteburuan. Herriko klub eta elkarteek askotariko kirol diziplinak ezagutaraziko dituzte Landako Gunean, herritarrek bizimodu osasungarrira batzera deitzeko. Horretarako, kirol erakustaldiak egingo dituzte eta informazio guneak ipiniko dituzte herritarren zerbitzura. Egitaraua zapatuan hasiko da, eta goizean (10:00-14:00) zein arratsaldean (16:00-20:00) egingo dituzte saioak. Domekan, jarduerak gizean baino ez dira izango, 10:00etatik 14:00etara. Horietan guztietan kirol jardueretara gerturatzeko aukera egongo da: futbolera,

errugbira, xakera, pilotara, arku-tirora eta arte martzialak, besteak beste.

Kirol Eguneko ekitaldi parte hartzaileetarako batzuk kalistenia eta zumbathoia dira. Lehengo Ibaizabalgo parkean egingo dute, zapatuan. 10:00etatik 12:00etara 18 urtetik gorakoentzako saioa egongo da, eta 12:00etatik 14:00etara 12tik 17 urtera artekoentzako. Domeka goizean, 10:00etan, zumbathoia egingo dute Landako Gunean.

Iker Txertudi Durango Kiroletako zinegotziak klub "konpromisoa eta talde-lana" eskeru zituen aurkezpen, eta herritarrek parte hartzera gonbidatu zituen.

## JOKALDIA



DANI NUÑEZ

KICKBOXING ETA BOXEOA

## Ate berri bat zabalik arte martzialentzat

Aurreko kolaborazioan aurreratu nuen klubarentzat garrantzitsua zen proiektu bat genuela esku artean. Bada, hona zer den: Iurretan Indar Xsport Basque Country Fight Club arte martzialen zentro berria ireki dugu. Dagoeneko martxan dago gimnasioa eta klaseak ematen hasi gara, nahiz eta inaugurazio ofiziala irailean egingo dugun.

Proiektu honek ez du soilik lokal berri bat esan nahi. Etorkizunera begira egindako apustua da. Modalitate berriak gehituko ditugu, orduetgia zabalduko dugu eta gero eta pertsona gehiagori arte martzialak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera eskaini nahi diegu. Gure helburua argia da: kirol hau hazten jarraitzea eta komunitate sendo bat eraikitzea.

Hazkunde horren isla izan zen joan den zapatuan jokaturako Elorrioko Kickboxing Openaren bosgarren

**"Dagoeneko martxan da gimnasio berria, nahiz eta inaugurazio ofiziala irailean egingo dugun"**

**"Elorrioko Openean sorpresa hunkigarria izan genuen, Laureano Lara tatamira igo zenean"**

edizioa ere. Hogei klub inguru elkartu ziren, 203 parte-hartzaileekin, eta hiru tatamitan banaturako jardunaldi bizi eta ikusgarria izan genuen goiz osoan zehar. Gainera, amaieran sorpresa hunkigarria bizi izan genuen: Laureano Lara tatamira igo zen borrokalde bat egitera. Une ikusgarria izan zen, baina batez ere emozioz bete, bertan geunden guztiok gogoratuko dugun horietakoa.

Horrelako ekitaldi bat aurrera ateratzea ezinezkoa litzateke antolakuntzan ibili ziren pertsona guztien lanik gabe. Zorionak eta mila esker denei; onenak zarete.

Azken finean, gimnasio berriaren irekierak eta Elorrioko Openak norabide bera dute: kickboxingari eta arte martzialei bultzada ematea. Horretan sinesten dugu, eta horretan jarraituko dugu lanean.

Ekainaren 12tik 18ra

# Zenbat ezagutzen duzu Atxondo?

Irabazi bazkari bat **Akebaso** jatetxean 🍷

EDONORK PARTE HARTU DEZAKE!

**SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!**

## GUARDIAKO BOTIKAK

### EKAINAK 12, BARIKUA

09:00-22:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

### EKAINAK 13, ZAPATUA

09:00-22:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

### EKAINAK 14, DOMEKA

09:00-22:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

### EKAINAK 15, ASTELEHENA

09:00-22:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

### EKAINAK 16, MARTITZENA

09:00-22:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

### EKAINAK 17, EGUAZTENA

09:00-22:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

### EKAINAK 18, EGUENA

09:00-22:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

24 orduz zabalik daueden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: [www.anboto.org/botikak](http://www.anboto.org/botikak)

## ZORION AGURRAK



ABADIÑO

Ira

Iraaaaaa! Zorionak, pitxin! Mosu handi bat zure lagun ezkutuan partez! Eta, tia, ia noz konbidatzen nauzun raba batzuk jaten! (Sobran dakizu nor nazen)



ABADIÑO

Jakes

Zorionak, Jakes! Jarraitu orain arte bezala, artista! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez! Ondo ospatu lagunekin!

## Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurrak](http://Anboto.org/zorionagurrak) helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

## OROIGARRIA

### Anboto eskelak:

ESKELAK JARTZEKO:

946 816 558 edo [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

Modulo bateko Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **75** / Anboto kideendako **65**

Bi modulotako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **115** / Anboto kideendako **105**

## GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozaturango@gmail.com](mailto:gozaturango@gmail.com)

☎ 661 401 400

📍 Gozatu Gozotegia

📍 gozatugozotegia



**Zorionak Jose Antonio** (1066.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.



ATXONDOKO  
UDAL IGERILEKUA

2026ko denboraldia  
Ekainaren 22tik irailaren 6ra

Ordutegia  
11:00-20:00

### SARRERA

4 urtera arteko  
umeak debalde

5-17 urte  
bitartekoak 4€

18tik gorakoak 5€



# INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe Barrenkalea, 15 behe - DURANGO Tel: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
<p><b>ERAIKUNTZA BERRIA</b> <b>AZOKA BERRI</b> 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera. <b>ARANDONOTORRE</b> Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekuak. C.E.E=B.</p> <p><b>AUKERA</b> <b>IURRETA</b> 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E=F 140.000 € <b>GARAI</b> 2.759 m2-ko lursaila. Lursail eraikigarria. 240.000 €. <b>SAN INAZIO</b> Garajea. 11.000 €. <b>ALLUITZ</b> Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehoia 2 kaletara. 110.000 €.</p> <p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b> <b>ARTEKALEA</b> 90 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 balkoi. Berriztatua. C.E.E=E 244.000 €. <b>EZKURDI</b> 88 m2. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Trastelekuak. C.E.E=F 255.000 €. <b>SAN INAZIO</b> 104m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea. CEE=E. 330.000 € <b>KOMENTUKALE</b> 125m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde-garbitegia. Terraza. C. EE.=G. 298.000 € <b>EZKURDI</b> 101m2. 3 logela eta sukalde-egongela. Ganbara. C.E.E= F. 319.500 € <b>MAÑARIA:</b> 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €. <b>BASERRIA, ZORNOTZA</b> Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. 470.000 €. C.E.E=F <b>MUNTSARATZ</b> Baserria. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €.</p> <p><b>LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI</b> <b>IZURTZA:</b> Pabilioia. 261 m2. 261 m2-ko solairuartea. Egokitua. 195.000 €. <b>MURUETA TORRE</b> 44 m2. Kearentzako irteera. 50.000 € <b>ASKATASUN ETORBIDEA</b> 60m2. Lokal egokitua. 125.000 € <b>MATIENA</b> Trañabarren. 60m2.Salgai. etxebizitza egiteko aukera. 70.000 € <b>DURANGO</b> 100m2. Lokala. Alde zaharrear. Egokitua. 115.000 € <b>MASPE</b> 150m2. Lokala. 90.000 € <b>KOMENTUKALE</b> 100m2. Lokala. Egokitua. 160.000 € <b>IURRETA</b> (Bixente Kapanaga). 117m2. Lokala. 75.000 € <b>ASTEPE</b> 40m2.Lokala. egokitua. 70.000 € <b>URKIOLA</b> 120 m2. Egokitua. Alokairuan. 650 € <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 80 m2. Egokitua. Alokairuan. 1.350 €. <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. Egokitua. Erakuslehoia. Alokairuan. 2.900 €. <b>DURANGO</b> Bulegoa. Erdialdean. 1.go solairua. 650 €.</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI</b> <b>ALLUITZ</b> Garajea. Salgai. 15.000 € / Alokairuan 65 € <b>MENDIZABAL</b> Garaje itxia. 25.000 €. <b>ASKATASUN ETORBIDEA</b> Garaje itxia. 20.000 €.</p>	<p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b> <b>DURANGO</b> <b>ZUMALAKARREGI</b> 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria. <b>MONTEBIDEO</b> Berriztatuko. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak. <b>MONTEBIDEO</b> 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia. <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatuko. <b>FRANTZISKO IBARRA</b> 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia. <b>GOIENKALEA</b> 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. <b>GOIENKALEA</b> 2. solairua. Halla, 3 logela, sukaldea, 2 komun eta egongela. Bizitzin sartzeko moduan. <b>BARRENKALEA</b> Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekuak.</p> <p><b>LURSAILAK SALGAI</b> <b>URRUTXUA</b> 9 hektareko 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.</p> <p><b>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI</b> <b>IURRETA</b> Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea. <b>IURRETA</b> Baserrir erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatuko. <b>ABADIÑO</b> Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara. <b>BERRIZ</b> Andikona auzoa. Baserrir ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareko lursailagaz. <b>MAÑARIA</b> 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p> <p><b>BULEGOAK ALOKAIRUAN</b> <b>ABADIÑO</b> 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p><b>DURANGO</b> <b>ERMODO KALEAN</b> 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p> <p><b>LOKALAK ALOKAIRUAN</b> <b>DURANGO</b> Lekker taberna alokatzen da. 100 m2. 40 m2-ko jantokia, sukaldea, komunak. Zure negoziarako aproposa. <b>ALDE ZAHARREAN</b>, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI</b> <b>MATIENA</b> 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. <b>ELORRIO</b> 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</b> <b>BERRIZ</b> <b>BERRIZ</b> Eitua industrialdea. 600 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.</p>	<p> C. E. E.: E. 148.000€.</p> <p><b>DURANGO SAN FAUSTO</b> 47,66m2. Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztasuna. ITE-a pasatutakoa.</p> <p> C. E. E.: E. 228.000€.</p> <p><b>DURANGO ZEHARKALEA</b> 86,93m2. Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun (komun bat logela nagusia) Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdigunean kokatua. 19,85 m2-ko ganbara eta etxetik minutu gutxira garaje itxi bat erosteko aukera dago +22.000€.</p> <p> C.E.E.=G 210.000 €.</p> <p><b>IURRETA BIXENTE KAPANAGA</b> 94 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. ITE-a pasatutakoa.</p> <p> C.E.E.=E 164.000 €</p> <p><b>ABADIÑO SAN TROKAZ</b> 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.</p> <p> C.E.E=G 224.000 €</p> <p><b>MAÑARIA ANDRA MARI</b> 67,52 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna duxarekin. 2 balkoi. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. 20 m2-ko txokoa du, guztiz jantzia eta komunarekin, etxebizitzaren azpian kokatua, eta apartamentu bihurtzeko aukerarekin.</p>	<p><b>DURANGO</b> <b>ANDRA MARI:</b> 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. <b>BARRENKALEA:</b> Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F <b>GOIENKALE KALEA:</b> Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F <b>SAN INAZIO AUZUNEA:</b> 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A <b>ZABALE KALEA:</b> 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 € / E.E.Z=E</p> <p><b>ABADIÑO</b> <b>DENDARIKO:</b> Zaharbertzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p><b>ATXONDO</b> <b>ARTEKALEA, 13:</b> Konpontzeko baserrira lursailarekin. 300.000 €.</p> <p><b>BERRIZ</b> Bidegain kalea: Duplexa. 3 logela, sukaldea, 2 egongela eta 3 komun. Terraza. Igogailua. 2 garaje eta trastelekuak. 450.000 € / E.E.Z=Bidean <b>MURGOITIO AUZO:</b> Berreraikitako baserrira lurzuruzagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 € <b>EITUA:</b> Berreraikitako baserrira lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p> <p><b>GARAI</b> <b>MOMOTIO AUZO:</b> Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p><b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO</b> <b>ANTSO EZTEGIZ:</b> Garajea. 45 € / hilean. Motorrentzat egokia. <b>MADALENOSTE:</b> Garajea. 70 € / hilean. <b>KURUTZIAGA:</b> garajea. 18.000 €. <b>KURUTZIAGA:</b> Garaje itxia 22.000 €. <b>MADALENOSTE:</b> Garaje itxia eta trastelekuak. 42.000 €.</p> <p><b>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGO</b> <b>ANDRA MARI KALEA:</b> 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E <b>BARANDIARAN KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean. <b>IBAIZABAL AUZUNEA:</b> 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E <b>KOMENTU KALEA:</b> 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F <b>ZABALE KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F <b>ABADIÑO</b> <b>ELORRIAGAZAR:</b> 444 m2-ko pabilioia. 180.000 € salgai / 1.000 € / hilean <b>TXIÑURRISOLO:</b> 38 m2-ko lokala. 495 hilean / E.E.Z=E <b>ALIENDALDE:</b> 285 m2-ko pabilioia. 250.000 € <b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 11 m2-ko lokala. 20.000 € negoziagarriak.</p>

**(Alkar)bizitza jokoan****SERGIO MURILLO CORZO**

Gaur indarrean sartzen dira Europako Asilo eta Migrazio Ituna izenez ezagutzen diran agintarauak. Araudi konplexua eta zabala da; aditua ez dan edonorentzat, irisgaitza.

Lerro honeetan ezin daiteke argi nahikorik jarri Europar Batasun osoan gaurtik daukagun lege esparru honen inguruan. Baina izan bedi adi egoteko dei bat. Bihar, egunero lez, etxe ondoko tabernara kafea hartzera joanda, hau itxita topatu zeinke. Ahmed gaur ez da bertaratu, ezin dau lanik egin. Marokora bueltatu da, lan kontratu egonkorrik ez daukalako. Herrian zabalik gelditzen zan taberna bakarra da Ahmedek goizero zabaltzen ebana, herrikideon alkargune bakarrenetarikoa. Nahikoa ardurarik ez, eta etxera bueltan zure auzokidea dan jatorri kolonbiarreko Gladis hurbiltzen bajatzu, adi: bere herrialdera bueltatzera behartuta dago. Uda honetan osasungintzan lan egiteko esperantzaz, medikuntzako formakuntzaren baliopendaren zain egoan. Ez da heldu. Egoitza baimenik ez, lan kontratua sinatu ezinik, akabo amestutako bizitza barria... eta akabogure herriko kontsultategian uda honetan medikua izateko lasaitasuna.

Ziurrenik ez dira horrelakoak bihar bertan gertatuko, araudi barriak ahalbidetzen dauzan egoerak izan arren. Eta ez, ez dira besteen arazoak; zure, bere eta nire bizitza dira. Alkarbizitza dago jokoan.

**"Wikilariona oso lan polita da eta mordoa ikasten dugu; bete egiten zaituen lana da"****LURDES TOTORIKAGUENA GARRO EUSKAL WIKIEMAKUMEOK TALDEKO KIDEA****Aitziber Basauri IURRETA**

Euskal WikiEmakumeok Taldeak lanean jarraitzen du emakumeek sarean duten presentzia gizonenaren pare ipini eta arrakala murrizteko. Lurdes Totorikaguena (Iurreta, 1950) talde horretako kide da 2018tik, eta 900 emakume baino gehiagoren biografiak sortu ditu euskarazko wikipedian.

**Zer dela eta batu zinen Euskal WikiEmakumeok taldera?**

Iurretako Juan Orobiogoitia ikastetxean irakasle izan naiz eta jubilatut nintzenez sare sozialen inguruko ikastaro batean hasi nintzen Durangoko Andragunean. Ordenagailuekin lan egin dut beti, ikastetxean idazkaria izan nintzen, eta falta hori sentitzen nuen. Gainera, sare sozialen mundua ez nuen asko ezagutzen. Bada, Marisa Barrenak Euskal WikiEmakumeok taldera batzeko proposatu zigun eta gustatu egin zitzaidan ideia.

**Zortzi urte joan dira harrezkero.**

Bai. Hala ere, Durangoko Euskal WikiEmakumeok 2020an hasi ginen ganoraz, pandemiaren etenaldiaren ondoren. Andreak elkartaren babesean hasi ginen. Barikuero batzen gara Andragunean, 16:00etatik 18:00etara.

**900 emakumeren biografia osatu duzu, eta horietatik 700 zientzialariak dira.**

Zientzietako irakaslea izan naiz eta gustuko dudan arloa da. Gainera, pentsatu nuen irakasleentzat lagungarri izan zitekeela. Ni neu irakasle nintzenez



Lurdes Totorikaguena, Iurretan.

ez zegoen informazio fidagarri askorik euskaraz. Adibidez, M8aren bueltan, ikasleei emakume zientzialariei buruzko informazioa eskatzean igartzen zen hutsune hori. Halaxe hasi nintzen.

**Lan handia dago biografia bakoitzaren atzean?**

Bai! Hala ere, sasoiak daude. Batzuetan ordu gehiago ematen dut, eta besteetan gutxiago. Baina nik baino lan gehiago egiten dute beste batzuek; Marisak, esaterako. Hasieran biografia bat osatzea mordoa kostatzen



PEFC ziurtagiria  
Produktu hau  
kontrolatutako  
iturrietako materialez  
egina dago, birziklatua  
da eta Baso Kudeaketa  
Iraultzailearen  
ziurtagiria dauka  
www.pefc.es

den arren, behin martxa hartuta errazago egiten da. Ordu bian osatu daiteke biografia bat. Barikuero ordu bian egoten gara lanean, baina etxean ere ibiltzen naiz denboragaz nabilenean. Neguan zeozer gehiago. Harra-patu egiten zaituen zeregina da! **Non topatzen duzu informazioa?** EHUKo matematika irakaslea den Marta Macho wikilariak editatzen duen *mujeres con ciencia* bloga erabiltzen dut. Egunero zenbait emakumeren efemerideak publikatzen ditu eta zerranda itzela dut jada. Espainiako Wikipediatik ere etortzen dira proposamenak. Adibidez, Palestinan gatazka sortu zenean, emakume palestinarren biografiak egitea erabaki genuen. Biografiak sortu ere egin ditugu, Berrian zein ANBOTOn argitaratutako elkarrizketaren batetik abiatuta. Ingurukoei galdetuta ere izan dugu emakumeren baten berri. Durango 12.400 emakume ekarri ditugu Euskal Wikipediara. Horietatik %10 guk sorturikoak dira.

**Euskal Wikipedian genero arrakala murriztea lortu duzue?**

Bagabiltza. Euskal WikiEmakumeok-en helburua zen 2027rako 30.000 emakumeren biografiak egitea, eta apirilean lortu genuen. Durangoko wikilarion aurtengo erronka 14.000 emakumeren biografiak sareratzea da; 1.400 biografia sortu, eta sortuta daudenak hornitzea. Wikilari berriak batzea ere gura dugu.

**Zelan animatuko zenuke jendea?**

Oso lan polita da eta mordoa ikasten da. Bete egiten du, eta itzela da denbora pasatzeko!

**1.000 biografiara helduko zara?**

Urtea amaitu aurretik gura nuke heldu. Baina biografia asko falta da oraindino. Zerrendan 100 bat ditut egiteko, eta egunero izen berriak agertzen dira.

**Motzean****Zientzialari bat?**

Marie Curie.

**Zientzia arlo gogokoena?**

Ingurumena.

**Euskal WikiEmakumeok taldea da...**

Lan polit bat egiteko elkartzen den lagun taldea.

**Editatu zenuen****lehenengo emakumea?**

Amaia Iturbide, Arratiako idazle eta irakaslea.

**Smurfit Westrock**  
Central Forestal

**+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen**

**Smurfit Westrock**  
Nervión

**Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak**